



Sarketa
eta pilulak

Sexu estandarraren kartzela

- **Ritxi Lizartza** Hitano batuaren ajeak
- **Lodz** Europa Ekialdeko zinemaren hiriburua
- **Carmen Kilner**
Erbesteratutako haurren peskizan
- **ARGIA Sariak 2010**





argia

argia.com/multimedia

Bertsio digitaletik harago Argi berri bat sarean




BIDEOAK:

Elkarrizketak, erreportajeak eta albisteak formatu arin eta azkarrean astero.



DIAPORAMAK:

Soinu naturalez, azalpenez ala musikaz girotutako argazki muntaia berritzaileak.



EKITALDIAK:

Euskal Herriko txoko ezberdinetan emandako hitzaldi eta ekitaldi interesgarriak klik batean euskaraz.



ARGAZKI-GALERIAK:

Kanpoko zein bertako argazki bilduma ikusgarriak begiaren gozamenerako.



FILM-LABURRAK:

Euskarazko film-laburren hautaketa.

- 4 Deabruaren abokatua: Huan Porrah.**
Aritz Galarraga.

Gaiak

- 16 Mineralen konkista Hego Amerikan.**
Gorka Berasategi.

Iritziak

- 18 Ttakun (h)errenka. Bakardadea izan.**
José Luis Padrón.
19 Gora Pro Nobis. Asisko Urmeneta.
20 Zer gertatu zen Loiolan? Xabier Mendiguren Elizegi.
Gora poloa. Andoni Mujika.
21 Usurbil atez ate. Ekai Txapartegi.
AHTri ez. Joxemari Ostolaza.
22 Olerkia. Gabriel Arestiren omenez.
Xipri Arbelbide.

Erdiko kaiera

- 23 Lodz, Poloniako ametsen fabrika.** Ion Ansa.
28 Liburuak. Gema Lasarte.
29 Diskoak. Iker Barandiaran.
30 Ezpalak. Jon Torner.
31 Abarrak. Mikel Asurmendi.
32 Denbora-pasak. Ana Zambrano eta Kike Amonarriz.
34 Zientzia eta teknologia. Joxerra Aizpurua.
35 Landareak. Jakoba Errekondo.
36 Denboraren makina. Nagore Irazustabarrena.

Termometroa

- 43 ARGIAren 2010eko Urtekaria. Iazko haizeak etorkizun haziak.** Gorka Bereziartua.
44 Ritxi Lizartza: "Hitanoa estandarrera ekarri gabeko azken osagaia da". Miel A. Elustondo.
46 Bero-beroan. Juan Mari Arregi, Onintza Iureta eta Xabier Letona.
48 Net Hurbil. Errusiaren ondotik Japonia, Turkia eta Polonia AEBen etsai. Pello Zubiria.

Azkena

- 50 Ultima ratio.** Itxaro Borda.

5 | Sexu medikalizatua | Mikel Garcia

Helburu gorena sarketa eta ugalketa baino ez duen sexu eredua nagusitu da gizartean. Interes ugari dituen eskema zehatz horretan jarduteko gai ez den oro, gaixoa da. Hala, dis-funtzioz beteriko gizartea da gurea, industria farmazeutikoaren onurarako.



26 | Poesia komuneko paperean | Lander Muñagorri

37 | ARGIA Sarien kronika | Urko Apaolaza

10 | Carmen Kilner | Miel A. Elustondo

Espainiako gerra zibilaren ondorioz, haur ugari Ingalaterrara alde egin behar izan zuen 1937an. Southamptona bidaiatu zuen *Habana* itsasontzian, haurren laguntzaile joan zen Carmen Kilnerren ama.



Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Joxe Mari Irazusta. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Erredakzioa: Urko Apaolaza, Mikel Asurmendi, Gorka Bereziartua, Unai Brea, Mikel Garcia, Onintza Iureta, Garbine Ubeda. Argazkilaria: Dani Blanco. Produkzioa: ANTZA, S.A.L. Argia.com: Lander Arbelaitz, Axier Lopez, Jon Torner.

Kudeatzailea: Berdaitz Goia. Salmenta Burua: Bego Zuza. Harpidetzak: Olatz Korta. Idazkaritza Teknikoa: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarte.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3 eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: 13. P.K. 48600 Sopela. POSTA ELEKTRONIKOA. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: Adur Software Productions. S.Koop. Elk. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 138 euro. Iparr Euskal Herria: 168 euro. Espainia: 138 euro. Beste atzerriak: 173 euro. Airez: 271 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea da.

Azala: Garbine Ubeda. Azaleko irudia: S. Daliren *El gran masturbador* obratik hartua.

 KULTURA SAILA Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza diruz lagundua		 
--	--	--



“Gaztelaniaz egiten duen jende horrek gaizki idatzitako latinez egiten du, agian?”

Huan Porrah | Euskandaluza

Haizeak bidali zuen handikan honuntza.

ARITZ GALARRAGA

Argazkia: Huan Porrah-k utzia

Geroztik hemen dabil gure andaluza?

Ez, itzuli nintzan nere herrira, Andaluziara, tesia bukatu ondoren, 2004an. Guztira hamar bat urte izan dira euskaldunon artian, “hormak botatzen”.

Vocentokoen arabera Euskal Herriatik exiliatu diren milaka eta milaka eta milaka horietako bat zaitugu, beraz.

Ez da izango nere kasua, ni andaluza naiz hasieratikan eta erdi-euskaldun bihurtu nintzan zuen artian.

Hemen izandako garaian punk mugimendua aztertu zenuen. Eta ez trikitixa.

Baita ere, baina jaietako giroan nagusiki, azterketa ez-ofizial batian. Hala ere, nere lagun Tapiaren fusio lana aipatzen det euskal punkien inguruko azterketan.

Punka unibertsitatean sartu zenuen zuk!

Nik ustet, hobe esanda, punka atzekaldeko atetik sartu geniola unibertsitateari.

Basagoitiz gain, geratzen al da gaur euskal punkirik?

Izen horrekin eta beste batzuekin, Euskal Herrian oraindik punkiak sortzeko aitzaki mordua geratuko dira urte askotako.

Jarraitzen duzue andaluzieraz idazteko arauak sortzen edo etsi duzue dagoeneko?

Hortan ari gea, aurrerapausoak ematen instituzioetatik kanpo, lan gogor eta finko batekin. Herri andaluzak esango digu ze

erritmo jarraitu. Azaruan eukiko deu gure *Vª Hunta d'ehkritoireh en andalú*, Graná aldian... eta pozik.

Jende askok pentsatuko du gaizki idatzitako gaztelania proposatzen duzuela.

Gure ahozko kultura andaluzan ikuspuntu-tikan, gaztelaniaz egiten duen jende horrek gaizki idatzitako latinez egiten du, agian?

Huan Porrah bada andaluzieraz Juan Porras, nola geratuko litzateke Aritz Galarraga?

Aritz Galarraga ez da izen andaluza, ezta Jon Borrak euskalduna ere.

Aizu, Hernanin Animaliya ezizenez ezagutzen zaituzte oraindik.

Andalúerazko *Animá* nere ezizen punkitikan dator. Ekologista naizelako izango da, ezta?

Inoiz “Huan Porrah, andalofiloa” irakurri izan dut eta ezizena hortik zetorrela uste nuen...

Kar kar! Nahiko animaliya bagera, bai, andalofiloon artian.

Bada, gauza dezente egiten duzu zuk. Lanik egin gabe, egun osoa txisteak kontatzen imajinatzen zintudan!

Bueno, iada pasatzen ari zea *kaxondeito*-arekin! Eta andaluzoi estereotipo kutre asko kokatzen badizkigute, ze esango zenuke euskaldunei dagokizuenaz? Agur bero eta txeratsu bat Euskal Herriko nire lagun guztioi eta ARGIA-ko irakurleei. *¡Zalá i ar kudio!* ■

• ASTERO GAIA •

Sexu medikalizatua

Ohean supergizaki izan nahian

Tauritonari lekukoa hartu zion Viagra ospetsuak, eta Priligy eta Flibanserina izan dira gizon eta emakumeen izara arteko jokoak “hobetzeko” azken asmakizun farmazeutikoak. Iragarki andanak ozen diosku: sexu ona lortzeko izan eskura botika-koktela, baina sexu on horrek interes ugariko eredu jakin bati erantzuten dio.

MIKEL GARCIA

Argazkiak: Dani Blanco





“EUREK JADA GAINDITU DUTE, orain zoriontsu dira”. Bikote irribarretsua erakusten dituzten iragarkiz bete dira egunkari eta telebistak, isurketa goiztiarrari aurre egiteko konponbideak salduz. Priligy isurketa goiztiarraren kontrako botika uztailen komertzializatu izanarekin zerikusia izango du, noski. Hala ere, Viagrak jarraitzen du eragiten zalaparta gehien eta zakila tentetzeko pilula urdinek gainezka egiten dute edozein ordenagailuko spam karpetan.

Hain hedatua dagoen medikamentu festa ez zen, ordea, beharrezkoa izango sexu harremana beste era batera ulertuko bagenu, eta eredu nagusi eta bakarra ez balitz izango sarketarena. Hots, ugalketa, koitoa eta beraz sarketa helburu eta funts baino ez duen sexua nagusitu da; gainontzekoa bigarren mailako praktikak dira. Pertsona bakoitzaren apetak baino, badirudi garrantzitsuagoak direla irizpide neurgarri eta objektiboetan oinarrituriko orgasmoak. Eta noski, pelikuletan, iragarkietan, denda eta farmazietan, lortu beharreko sexu perfektu hori saltzen digute, botiken bidez (edo botiken menpe).

“Sexua kontsumitzen ari gara, alde ludikoa pixkana ahazten, eta konplitu beharraren tentsazioagatik botiketara jotzen dugu, presio eta konplexurik gabe disfrutatzen joan beharrean. Kontua ez da sarketa saihestea, baina mekanizatua dugu jarduna: sarketa, sarketa egin behar delako, beste eredurik ez dugulako,

Ez dago botikarik gizarteak eta norberak sortutako espektatiben gaineko presio, beldur, lotsa eta segurtasun faltak sendatuko dituenik.

eta ez agian gehien gustatzen zaiguna delako. Ez dago eredu bat atseginen bizitzekoa, plazera kontuan hartzen duena, pertsona aintzat hartzen duena, neurgarria ez dena... Hala, frustrazioa sor daiteke sarketarekin disfrutatzen ez badugu, eredu horren baitan konplitzeko gai ez bagara eta zakila tente jartzen ez bazaigu edo bagina lubrikatzen ez bazaigu”, diote Sustraia sexu elkartean aritutako Amaia Makazagak eta Bixen Ezeizak. Halakoetan, pertsona bezala anulatu egiten gara, helburu bakarra dagoela dirudielako, aho-genitalezko harremanera, masturbaziora, masajeetara edo beste hamaika praktikara jo beharrean: “Zergatik izan behar dugu denok jolasteko patroi bakarra? Ez al da hobe bikoteak berak erabakitzea nola nahi duen jolastu? Gizonari zakila tente jarri ez bazaio, jokoa bukatu egiten da; emakumeak esaten dio ez duela axola eta akabo, ez dute jarraitzen. Ez zaizula tente jarri? Eta zer? Goazen jolasten jarraitzera, agian altxatuko da, agian ez, agian erdizka... baina berdin dio, disfrutatzen etorri gara!”.

Eredu nagusi horren baitan ulergarria da medikamentuak ugaritzea, bakoitzak bere rola bete dezan: sarketa errazteko, iraupen jakin batez guztiz tente mantenduko diren zakilak, eta desioz (probokatua bada ere) behar adina irekita mantenduko diren aluak. Berdin homosexualen kasuan, harreman ludikoagoak izan daitezkeen arren, rol femeninoa eta maskulino mantentzen dutela eta buruan sexu eske-

ma bera jarraitzen dutela baitiote Makazagak eta Ezeizak. Azken finean, gizarte berean, eragin berdinen pean gaude denok, eta jarrerak eta portaerak errepikatzen dira, beste modu batera izanik ere. Eta adineko pertsonekin beste hainbeste: zorionekoak gu medikamentuei esker eskema berarekin “disfrutatzen” jarraitu ahal izango dugulako luzaro, aldaketa biologikoetara egokitutako aukera berriak esploratu orde. Arazoa, Viagra bezalako botikek odol-hodiak zabaltzen dituztela eta bihotzeko gaitzen bat izanez gero, ez dela oso gomendagarria bihotzaren erritmoa hainbeste bizkortzen duen pilula. Esperma ugalketa ahalmena gutxitzen duela ere dio ikerketa hainbatek.

Ezintasun biologikoei aurre egiteko, edo modu ludikoan noiz-behinka jostatzeke, ondo etorri daitezke botikak, baina oinarrian dago akatsa: sexualitatea ez da soilik jardun fisiologikoa, ez dira ere ezio handidun super-gizonak eta pasio izugarriak super-emakumeak, eta eskema horren mesedetan funtzionatzen dute medikamentuek; intimitatea, pentsamenduak, emozioak, afektuak, desioak eta beharrak arbutatuz. “Muturrera eraman dugu pilulen kontsumoa –uste du Ezeizak–, eta kontua da gero ez garela hobeto bizi! Ondo sentitzen bazara zure buru eta gorputzarekin, jolas bezala integratuko dituzu agian medikamentuok, baina behar ez dituzu beharko. Eta alderantziz: sexua helburu neurgarri, zientifiko, objektibo bihurtzeki beti zer edo zeren bila ibiltzea dakar”. Baina zer hobe jende lehiakor eta ase gabea baino, gizarte kontsumista baten nahietarako?

Emakumeen disfuntzio sexuala?

British Medical Journal kazetak artikulua argitaratu zuen duela hilabete batzuk, industria farmazeutikoak berak sortutako gaixotasun baten adibide garbiena emakumeen disfuntzio

**Asko hitz egiten da
disfuntzioez, patologizatu
egin baita sexua. Errezeta
kimiko uniformeek dute
konponbidea, genitaletan
zentratzen den
medikuntzak; emozioak,
afektuak, beharrak... ahaztuz**

sexuala dela adieraziz. Ikertzaile farmazeutikoek emakumeen arazo sexualak puztu eta distortsionatu dituztela kritikatu zuen idatziak, gaixotasun berria asmatuz. Noski, horri aurre egiteko sendagaia merkaturatu zuten ondoren, emakumei libidoa eta desira suspertuz negozioa egiteko: Flibanserina (“Viagra femenino” ezizenez ezaguna). Shere Hite soziologo famatuak zera azpimarratu zuen artikularen harira: emakumeak ez du disfuntzio sexualik, arazoa ez du emakumeak, gizartean nagusi den ereduak baizik, Hite emakume andanarekin egindako azterketek frogatzen baitute gehienek klitoria igurtziz dutela orgasmoa, ez sarketarekin, eta beraz sarketarekin orgasmorik ez lortzea ez dela disfuntzio baten seinale. Alegia, ez direla ahaleginak bideratu behar emakumeak sarketarekin disfrutatzera, harreman motak aldatzera baizik.

Sexuan, ordea, aspaldi nagusitu zen zientziaren diskurtsoa, eta hain jardun subjektiboa orokortzeko eta objektibizatzeke nahiak ugalketara lotu zuen sexualitatearen kontzeptua. XIX. mende bukaerako Richard Von Krafft-Ebing-en *Psycopathia sexualis* liburuak eman zituen urrats garrantzitsuenetakoak: ugalketa biologikora bideratzen ez den jardun oro, perbertsioa da, haren arabera. Kurioski, objektibo izateko asmotan oso moralista da mezua: koitoa da sexualitatearen helburu onargarri bakarra, jarraitu beharreko patroia. Michel Foucaulten *Sexualitatearen historia* bezalako lanekin berretsi baino ez da egin ideia hori, izara artean egingarri dena zehaztuz, orokortuz, tipifikatuz, eta gainontzeko guztia gaixotasuntzat hartuz. Hala, ez da harritzekoa disfuntzioez hainbeste hitz egitea gaur egun, patologizatu egin baita sexua. Errezeta kimiko uniformeek dute konponbidea, genitaletan zentratzen den medikuntzak, arlo inkontziente eta subjektiboa alboratuz.

Sarketa burutzeko mugatzen gaituen guztia hartzen da disfuntziotzat, harremana beste era





**TALLERES
MITXELENA S.COOP.**



**Torno bertikala: Ø 4.200 x 2.000
Fresadora: 10.000 x 3.500
Barrenatze mekanizatua**

Talleres Mitxelena, S.Coop.
Ezizgo Poligonoa • Zikutzaga Auzoa • 20120 HERNANI (Gipuzkoa)
T 943 55 25 12 - 16 • F 943 55 28 16 • info@talleresmitxelena.com

www.talleresmitxelena.com



Erotismoa eta sexua betidanik islatu ditu arteak. Ezker-eskuin: Khajurahoko tenpluetako goi-erliebea (Indian); Nikolay Eltxov artistaren *Kiss*; Salvador Dalíren *El gran masturbador*; eta Tom Wesselmann-en obretako bat, pop-art estiloan.

batera ere planteatu eta disfrutatu daitekeela kontuan hartu gabe. Baina norberak baloratu behar du bagina itxita edukitzeak, zakila ez tentetzeak edo isurketarako denbora gutxia-gehiago behar izateak nola eragiten dion izan nahi duen harremanean. Errazena pilulara jotzea den arren, Antonio Fernandez urologoak bere pazienteen artean egindako azterketaren arabera, farmakologikoki artaturiko pazienteen %60ak baino ez ditu harreman sexualak hobetzen, gainera farmako horrekiko menpekotasuna garatzen dute eta hartzeari uzten diotenean, berriz agertzen da arazoa. Izan ere, adibidez kezka bat dugulako erlaxatuta ez bagaude, zakileko muskulua ez dira erlaxatuko, ez da odolez beteko eta ez da altxatuko. Viagrari esker bai, lortuko dugu muskulua erlaxatzea, baina kezka, sakoneko arazoak, hor jarraituko du.

Problema biologikoa denean, botikak zilegi izan daitezke. Baina ez dago medizinarik gizarteak eta norberak sortutako espektatibaren gaineko presio, beldur, lotsa eta segurtasun faltak sendatuko dituenik. Zentzuzkoena dirudi hori guztia arazo denean alde psikologiko eta emozionala lantzea, eta bakoitzaren gorputza ezagutzen laguntzea. Sexologo ugari ordea, bat egiten dute gailendu den ereduarekin eta “disfuntzioa” baino ez dute tratatzen, modu patologikoan gainera, gaixoen gisan.

Eta sinetsita dugu; hain dugu buruan sartua eskema, saltzen diguten moduan gozatzeko gauza ez bagara gure burua gutxietsi egiten dugula. Are gehiago, sarri zakil tentetzean eta sarketan islatzen du gizonak bere nortasuna,

eta emakumeak horretan jolastu nahi ez badu, gizon bezala arbuizatuta senti dezake bere burua. Amaia Makazagak kontatu digunez, elbarrituen sexualitateari buruzko azterketarako datuak biltzen aritu zen eta zerak harritu zuen gehien: elkarriketatutako gizonetako elbarrituen kopuru handi batek nahiago luke zakila tentetu ahal izatea, ibiltzeko gaitasuna berreskuratzea baino!

Antisorgailu motetara mugatzen da askotan heziketa sexuala, eta jarraitzen dugu hitz egin gabe jarrez, eredu aldaketez, pentsamoldeez

DIUa, partxea eta biharamuneko pilula

Bitxia da nola diogun sexua ugalketara dagoela bideratua, baina era berean itzelezko negozioa den antisorgailuena, haurdun ez gertatzeko. Eta hemen ere, medikalizazioa dago tartean. Barrera metodoa erabiltzen dutenek (diafragma, kondoia...) ez, baina gainontzeko antisorgailuek (pilulak, hormonak jariatzen dituzten DIUak eta partxeak...) badute eraginik gure gorputzean. Zehazki, emakumeengan, eurak baitira antisorgailu mota hauen hartzaileak. Makazaga eta Ezeizaren ustez, ez dira batere aholkagarriak: “Halakoak erabiltzeagatik hainbat hilabetez hilekorik gabe egon direnak ezagutzen ditugu, edota tripako minarekin, eta zailtasunak sor ditzakete haurdun gertatzeko, obarioak atrofiatu eta ondo funtzionatzeari utz diezaioke...”.

Finan, estrogenoak askatuz gorputzean zerbait artifiziala sorraraztea dute helburu: gorputzari haurdun zaudela sinetsaraztea. Zuzenean hilekoa desagerraraz dezaketen partxeekin ere egin dituzte ikerketak dagoeneko.

Viagra gazteentzat da

1998ko martxoan, sexualitate farmakologizatuaren historian izandako jauzi arrakastatsuena komertzializatu zen lehenengoz: ziurrenik Interneteko iragarkirik errepikatuenetakoa den pilula urdina. Saldutako kopuruaren inguruan datu oso desberdinak aurki badaitezke ere —batez ere errezeta gabe eta modu klandestinoan saltzen delako Viagra asko eta asko—, gaur arte 100 herrialdetako 30 milioi pertsonak baino gehiagok kontsumitu omen dute. Esan gabe doa mugitzen duen dirutza izugarria dela.

Inpotenteei edo hirugarren adineko pertsonen zuzendutako produktutzat saltzea hipokresia da egun, hainbat ikerketek dagoeneko frogatu baitute 45 urtetik beherakoak direla kontsumitzaile handienetakoa. AEBetako bost milioi pertsona baino gehiagorekin egindako azterketa ofizialaren arabera, kontsumoa %312 igo zen 18 eta 54 urtekoen artean, 1998tik 2002ra. Azterketaren arabera, gainera, kontrolik gabe haziz doa kontsumoa adinotan, sarri, harreman



berriek sortzen duten antsietate eta espektatibei aurre egiteko, ez berez “arazorik” dagoelako. Italian egindako ikerketa batek, hain zuzen, dio Viagra kontsumitzaileen %80ak erabiltzen duela sexu praktika- ren ostean azkarrago erreperatu eta bigarren bati ekin ahal izateko. Eta emakumeen artean Viagraren erabilerak nabarmen gora egin duela ohartarazi du *International Journal of Impotence* argitalpenak, sildenafilak (Viagrak daraman farmakoa) orgasmoa errazten baitie hainbat emakumeri. Alegia, argi dagoela arrazoi medikoek ez beste ugarik ere eragiten dutela botika honen kontsumoan. Viagreakiko Menpekotasun Sindromea duten pazienteak badira jada; utzi nahi eta ezin dutenen etsipena.

Oraintsu, negozio bide berria zabaldu dute Janssen-Cilag laborategiek, isurketa goiztiarraren aurkako Priligy pilula delakoarekin. Isurketa denbora laukoizteko gai den farmako hau, Viagreakin bezala ezintasunik ez dagoenean ere erabiltzen bada, negozio itzela izan daiteke. Hiru piluladun kaxak 35 eta 50 euro artean saldu ohi dira herrialde gehienetan (dosi txikiago edo handiagoetan).

Noraino iritsiko garen galdetzen dio larrituta Bixen Ezeizak bere buruari: “Emakumeak hilekoa gaizki bizi behar duela dirudi, fisiologikoki naturala dena estali, txarra bailitzan; usaina duela, mina ematen duela...”.

Biharamunek pilulak errazkeriaz erabiltzearekin arduratuta ere agertu dira, hainbat zuzenean antisorgailu bezala baliatzen baitu: “Oso pilula gogorra da gorputzarentzat; lehen hiru egunetan zehar hartzen zena, pilula bakarrean kontzentratu dute orain eta astindu handia da emakume baten barruarrentzat. Haurdunaldi batzuk saihestuko ditugu honekin, bai, baina eztabaida ez da hori, horretara iritsiarazten gaituzten eskemak baizik, eta jarraitzen dugu hitz egin gabe jarrez, eredu aldaketez, pentsamoldeez”.

Ikasleak, aho bete hortz

“Sexua ez da ugalketa” esaldiarekin hitzaldia hasi, eta ikasle guztiak aho bete hortz geratzen dira. Nola ez da sarketarik egongo sexu harreman batean? Gazteek estralurtarrak bailiran begiratzen zitelako diote Makazagak eta Ezeizak, duela lau pabost urte ikastetxeetan eskaintzen zituzten hitzaldiak gogoratzean. Gaur egun, kontua ez da gehiegi aldatu: heziketa sexuala ematen da, baina antisorgailu motei buruz hitz egitera mugatzen dira batik bat, eta testu-liburuetan inpotentzia, baginis-

moa, isurketa goiztiarra... besterik ez dagoela kexu dira Makazaga eta Ezeiza, disfunczioak baino ez. Gehienez, sarketaz gozatzen erakutsiko diete gazteei, baina ez sexuaz oro har gozatzen. Ezeizak gogora ekartzen duenez, “ahozko sexuaz hitz egin eta ikasleek esan izan digute: ‘Baina hori nire amak aitari egiten al dio?’ Uste dute sarketa ez den gainontzeko guztia prostituten gauza dela. Pentsatzen dugu gainontzekoa gauza zikina dela!”.

Eta ondoren datoz frustrazioak, jakina. Hastapeneko harremanak sarri ez baitira izaten pelikuletan faltan ederrak, eta beldur- rarak, segurtasun-beltak, antsietateak azalera- tzen dira. Gazte horietako batzuek agian Vaginesilera joko dute alua lubrikatzeko, edo Viagrara, behar denean zakila tente egongo dela ziurtatzeko. Izan ere, ezintasun biologi- korik ez duten gazte geroz eta gehiagok era- biltzen dituzte halako botikak —ikus koa- droa—, eta horixe da gizarte medikalizatu baten gailurra eta hondoa: behar ez dituenak ere medikamentuak hartzea. Kasu honetan gainera, gaztetatik, etorkizuneko harreman- en eskemak baldintzatuz, menpekotasun arriskutsuak sortuz.

Gozatzeko, ferekatzeko, barre egiteko, zoratzeko da sexua, eta hori lortzeko, presio eta aurreiritziak zokoratu eta burua askatzea da pilula onena. ■

«37ko haurrei eman zitzaien laguntza eredugarria da»

“Britainia Handira etorri ziren haurren kopurua ez da zehatza. Baina iturri ofizialen arabera, 3.840 haur heldu ziren, 80 irakasle, 120 laguntzaile eta 15 apaiz katolikorekin batera. SS *Habana* itsasontzia Santurtziko portutik irten zen 1937ko maiatzaren 22ko gauean Southampton aldera. Errege armadako bi gerraontzik lagundu zioten. Bizkaiko Golkoan bertan ekaitza lehertu zen eta itsas zorabio galanta eragin zien haurrei...”. 80 irakasle haietan zen Ana Maria Gonzalez Garate, Carmen Kilnerren ama.

MIEL A. ELUSTONDO

Argazkiak: Zaldi Ero

Ana Maria Gonzalez Garate, zuen ama, 1937an *Habana* itsasontzian Santurtzitik Southamptonera hemengo haurrei laguntzen borondatez joan zen emakumea.

Ama 2006an hil zen, 91 urte zituela. Has gaitezen: gure amama Elgoibarkoa zen: Kontxa Garate. Aitaita, Kandido Gonzalez, ez naiz oroitzen nongoa zen. Donostian bizi ziren biak, Urbieta kalean. Aitaita Kandido ile-apaintzaile eta bizargina zen, eta antzerki kritikak ere idazten zituen egunkariaren batean. Hiru alaba izan zituzten. Gure ama Ana Maria, alaba zaharrena, 1914an jaioa. Bittori eta Pilar etorri ziren ondotik. Gure amak 10 urte zituela, beraren aita –tranbiara igotzen ari zela, nonbait–, hankan min hartu, zauritu, zauria gaiztotu eta gangrenatu egin zitzaion. Eta hil. Amamak ez zuen atzera Elgoibarrera etorri nahi izan. Donostian geratu zen, lanean, 1926an, oso gauza arrunta ez bazen ere. Saltzaile hasi zen, bidaiari, beraren bi anaia bezala. Amama kanpoan lanean, eta gure amari etxeko arduraren zati bat egokitu zitzaion. 16 urte zituela, Gipuzkoako Irakasle Eskolara hasi zen gure ama, maistra ikasten. Horkoak ditut eskura dauzkadan agiriak. Horixe dut abiapuntua. 1929an hasi zen ikasten, Primo de Riveraren diktadura garaian, eta Errepublikarekin bukatu zituen ikasketak, 1933ko azarokoa da-eta irakasle titulua.

“Ingalaterrako Gobernuak xemaikorik ez zuen eman haurrei laguntzeko”

Irakasle izan zen eta Gernika, Galdakao, Portugaleten ibili zen, Ingalaterrara baino lehen. Ez da erraza zuen amaren aztarna segitzea...

1936ko irailaren 13an erori zen Donostia, eta Elgoibarrera etorri ziren lau emakumeak, hau da, gure amama, beraren hiru alabak hartuta. Bada, Elgoibarren, gure amamak hartu bere ama, Mariana, eta Portugaletera abiatu ziren:

bost emakume ziren, bidean. Familiaren lagun batzuen etxean babestu ziren. Lagun horiek ama-alabak ziren. Zazpi emakume etxe txiki batean! 1936ko azaroan Portugaleten ziren.

1937ko maiatzean *Habana* itsasontzian zen zuen ama...

Bai. Familian gainerako laurak Frantziara abiatu ziren, itsasontziz. Handik, Bartzelonara,

Nortasun agiria

Carmen Kilner (Londres, 1947). Zoologia eta Genetika ikasi zuen Birminghameko unibertsitatean. Geroago, Odontologia ikasi zuen eta Haur Odontologia erakutsi du unibertsitatean. Gaur egun, amaren bizia berrosatzen ari da. 37ko Haurren Elkarteko (basquechildren.org) kide da eta dokumentuak artxibatzen, ahozko narrazioak biltzen eta jendea hezten lan egiten dute. 200 bat lagun dira elkartean. Heren bat, gerrako haurrak. Beste heren bat, haien seme-alabak. Beste bat, interesa duen jende multzoa. Buletina argitaratzen dute urtean bi aldiz eta filma ere egina dute Ingalaterrara iritsi ziren gerrako haurrei buruz. Baita oroitzapen liburu bat eta erakusketa ibiltaria ere. Eta esan digu: “Haur denak ere ez dira elkarteko bazkide, ez dute gurekin bat egiten. Diote: ‘Zertan ari zarete orain kontu zaharrak haizatzen?’”. Jarrera horixe izan zuten Carmenen gurasoek... Beste ezpal bat du alabak.



• P E R T S O N A I A •
Carmen Kilner



Itzulera I

"Asko itzuli ziren, baina itzuli ez balira hobe... Francok presio handia egin zuen haurrak Espainiara itzul zitezen.

Ingalaterran, gobernuak esan zuenean haurrak bueltan etorri behar zirela, Euskal Batzordeak esan zuen ezetz, Ingalaterrako Gobernuak ez zuela batere dirurik eman haurrak zaintzeko, eta ez zegokiola hari itzulera erabakitzea: 'Haurrak atzera bidaliko ditugu, bai, baina gurasoek ondo hartuko dituztela ziur dakigunean'. Hala ere, zenbait haur, itzuli eta umezurztegira eraman zituzten”.

ondoren Frantziara berriz... Hantxe igaro zuten gerra garaia, atzera Euskal Herrira itzuli arte. Izeko Pili, esaterako, Elgoibarren hil zen, etxe honetan bertan. Beste izeko, Bittori, Frantzian zendu zen. Hara, Bartzelonatik Frantziarako ebakuatu zituzten garaian, arma fabrika batean ari zen lanean Bittori. Ebakuazio momentua iritsi eta amama, gure ama eta Pili, kamioian sartuta –ebakuazioa!, eta Bittori falta! Hantxe banatu ziren, batzuk alde bate-
tik, Bittori bestetik, bakarrik. Nola edo hala, Bittori Parisa heldu zen, hantxe egin zuen bizia, senideekin erresuminduta, abandonatu egin zutelakoan. Gerran gertatzen diren gau-
zak, baina betiko mina eragiten dutenak. Tris-
tea izan zen. Pili han ezkondu zen, hantxe hil. 50eko hamarkadan gure amak Londrestik hona ekartzen gintuenean –Londres, Paris, Irun zen gure bidea, trenez–, Parisen geratu eta izeko Pili bisitatzen genuen. Biltzen ziren bi ahizpak, eta negar egiten zuten, negar eta negar eta negar... Hala joanean nola etorrian ikusten genuen izeko Parisen. Eta gure ama eta izeko beti negar, elkarri besarkaturik. Oso gaizki pasatu zuten denek.

Gerra zen...

Ondoenagure ama libratu zela uste dut. Tira, Mundu Gerra etorri zen gero! Baina zer jan izan zuen, behintzat.

Habana itsasontzian joan zen zuen ama, hurrei laguntzen. Ingalaterrara heldu eta kanpamentuan jarri zituzten.

Kanpamentu batzuk hobeto antolatuta zeuden beste batzuk baino. Haurretako batzuk zenbait komentutan hartu zituzten. Eta esan beharra daukat, gaizki tratatu zituzten. Oro har, komentuetara zihoazen haurrek aber-

tzaleak zituzten guraso, haur katolikoak
ziren, baina, hala ere, gaizki tratatu zituzten!
Eta hemendik joan ziren apaizek ere ez
zuten zori hoberik izan...

Zergatik?

Gorri zirelakoan. Falangekoa izan ezik, gorri zinen!

Alabaina, inork ez zuen inor behartu haurrak hartzera. Ingalaterrako Gobernuak ez zuen kanpainarik ere egin...

Kanpainarik? Xemaikorik ere ez zuen eman. Ingalaterrako Gobernuaren baldintza zen haurrak etortzekotan, haien aldeko Euskal Batzordeak haur bakoitzeko hamar txelin ziurtatu behar zituela, asteko. Eta hori depresio garaian! Hala eta guztiz ere, haurrek laguntza izan zuten, sindikatuak, eskau-tek, elizek –katoliko eta ez katolikoek–, kuakeroek eta bestek eman zutelako. Adibidez, Clock oinetakoak, kuakero dira horien jabe. Bada, kuakeroek etxea, oinetakoak eta babe-
sa eman zioten haur kolonia bati. Ingalaterra iparraldean, oihal lantegi batek ere laguntza eskaini zuen, etxea eta arropak emanez; urtean barruko arropa sorta bi eman zieten haurrei... Beste kuakero batzuk, Catbury txokolateetakoak. Kuakeroak kontzientzia eragozle dira, ez dute borroka egiten. Haiek jendeari laguntzen diote, esker onari, aitor-tza publikoari edo merezimenduari uko eginda. Oso jende berezia da.

400 bidaiarirentzako lekua omen zuen *Habana* ontziak, baina 3.800 haur joan omen ziren bertan Southamptoneraino. Diote, Bilbo jausi ondoren, edota gerra amaitu ostean, haurren itzulera bidaia hasi zela, nahiz eta ehunka

batzuk han geratu ziren, dela gurasoak gerran hil zituztelako, dela kartzelan preso zeudelako, edo desagertuak...

Edo deserrian, edo inork ez zuen haien berri. Eta ondorioz, 400 bat haur han geratu ziren, eta bertan egin zuten bizia, eta han segitzen dute... Laurogeita hamar kanpamentutik gora antolatu ziren. Lehenengo, hiru hilabete egin zituzten Eastleigh-en, Basque Children's Camp izenekoan. Kanpin-dendak armadari alokatu zizkioten. Alokatu. Ordainarazi egin zieten. Eskautek jarri zituzten dendak, Southamptoneko nekazari batek utzitako soroe-tan. Herriko emakumeen joan-etorria etengabea zen, haurren arropak hartu, etxean garbitu eta atzera bueltan ekartzen zituzten. Janaria ere ekartzen zuten. Baziren okinak ere, milaka haur haientzat ogia ekartzen zutenak, egunero. Jende hark, hartu haurrak asteburuan eta etxera eramaten zituen. Jendeak haurrak ikusi eta borondatetsu jokatu zuen. Izan ere, herriko jendea zen, bertan errotutako komunitatea, gizatasun handikoa. Jendearen ekimena izan zen. Orduan baino lehen, Ingalaterran Errepublikaren alde jardun zuen hainbat jende: errefuxiatu kanpamentuetan laguntzen batzuek, brigadista berriz, beste batzuek. George Steer-en artikulua argitaratu zenean, "Biharamuna", jendeak gobernu presionatu zuen, lagun zezan. Ordu arte, Ingalaterrak, Frantziarekin batera, esku ez hartzeko ituna sinatua zuen. Baina jendeak ez zuen gobernuaren jarrera onartu: laguntzera behartu zuen. Gobernuak ituna jartzen zuen aitzakia, nahiz eta azkenean esan: "Itsasontzi bat hartuko dugu". Ez parte hartzeko ituna! Italiarrek eta alemanek ere sinatu zuten! Hortik atera nolakoa zen itun hura!

Zeure amaren bizitza berrosatzen ariko bazina bezala da. Horixe da irudipena.

Bai. Agiriak ditut, eta ez denak, baina haren lekukotasuna falta zait. Gernika gaineko kontu hura aipatu zidanean, nik artean ez nekien gauza handirik. 2002an hasi nintzen honetaz interesatzen. 37ko Euskal Haurren elkarte ere urte horretan osatu zen. 2003an jakin nuen elkartea antolatua zutela, eta ikerketan hasi nintzen. Elkartearen idazkari izan nintzen eta izen askoren berri izan nuen. Gaur egun ez naiz idazkari, diruzaina baizik, askoz okerrago... Baina gure ama hil zenean, 2006an, paperak agertu zitzaizkidan! Orduan hasi nintzen, benetan. Nik orain, gurasoei hitz egin nahi dut, ezin egin dudana!

Elkartean izango da zure gurasoak ezagutu zituenik, zuri laguntzeko modua izan dezake-tenak...

Bai. Esaterako, gure aita, Eduardo Sanchez Minguez murtziarra, ez zen *Habanan* heldu

Itzulera II

"Gertatu zen gurasoak haurrak jasotzera joan eta beraien seme-alabak ez izatea han. Gure amak, besteak beste, hurrei bidaltzen zizkieten eskutitzak irakurtzen zituen, lerro artean irakurri ere: 'Zer moduz zaude, ume? Gu gero eta hobeto. Gerrarik ez da, bukatu zen, janaria ere badugu, zatoz lehenbailehen, zu ikusteko amorratzen gaude, aitaite ere zu ikusteko gogoak dago...', baina aitaite hila, igual! Alegia, 'ez etorri!', esan nahi zuen horrek. Apaizak eta guardia zibilak gurasoei joaten zitzaizkien, eskutitzak idatz zitzaizkien behartzera, hurrei etortzeko esanez".

**NAFARROAKO
BERTSOLARI
TXAPELKETA**

10

www.nafarroakotxapelketa.com

bi Ldu

Azken-laurdenak:

Otsailaren 6an

GARESen

Udaltzeko erabilera

anitzeko aretoan

17:30ean

Eneko lazkoz

Jon Elizetxe

Alazne Untxalo

Xabier Terreros

Estitxu Arozena

Ioar Tainta

Nafarroako
Bertsuak
Elkartea

Laguntzailea:

argia



AZKEN HITZA

Arrazoi jakin bat

"50eko hamarkadan Debara etorri ohi ginen uda igarotzera, ama, amama eta izeko Pilirekin. Betidanik ezagutzen dut Elgoibar inguru hau, 'ingelesak' izan gara beti. Orain, berriz, nire eginkizun hau tarteko etorri ohi naiz, oso harro, eta oso pozik. Arrazoi jakin baten-
gatik nator hona, eta ama-
rengatik".

Itzulera III

"Ez dakit Ingalaterratik itzultako umeekin gertatu zen, baina bai Frantziatik etorritakoekin. Etorri dira haurrak eta gela batean sartu dituzte. Gurasoak, zain, beste batean. Haurrei izen-deiturak aldatu, gurasoek beren seme-alaben izenak eman, eta funtzionarioek ezetz, izen hura zutenik ez zela etorri. Eta haurrak umezurtegi bidean jartzen zituzten, edo haurrak adoptatu nahi zituztenei ematen zizkieten. Ondoren, izena aldatzen zieten berriz eta kito, betiko galtzen ziren: haiek bai, haur galduak! Haietako batzuk horrela haziko ziren, horrela bizi, eta horrela hil, egia jakin gabe..."

Ingalaterrara. Beniajanekoa zen (Murtzia, Espainia), hamaika seme-alabetan azkenurrena, eta guztien artean lehenengoa goi ikasketak egiten. Ingeniaritza Zibila ikasten ari zen. Bigarren urtean, nonbait, gaixotu egin zen, sukar erreumatikoak jota. Hirugarren anaia Ingalaterran zen ordurako. Meloi eta laranja esportazioan egiten zuten lan eta fruta Ingalaterrara esportatzeko aukera aztertzen ari zen. Horrela heldu zen gure aita Ingalaterrara, atsedean hartzera bidalita. Londres ondoan zegoen, auzoan. 1936ko uztailaren 16an abiatu zen Ingalaterrara, Francoren matxinada bezperan. Gero, hemengo haurrak hara iritsi zirenean, laguntzen hasi zen, bateko eta besteko kolonietan, errepublikarra zen eta.

Gerraren biktima zara?

Gerraren biktimaren ondorio. Gure gurasoek Ingalaterran egin zuten topo, gerra medio. Hara, gerra dela eta, zergatik geratu ziren

hainbeste ume Ingalaterran esango dizut: 16 urte bete orduko, haurrak libre ziren han bertan geratu edo etorri erabakitzeke. 1937an joan ziren haurrak 5 eta 15 urte bitartekoak ziren. Handienak, beraz, ikasten hasi ziren, edo lanean, Ingalaterran bertan zeudela, eta horretan zeudela, Bigarren Mundu Gerrak harrapatu zituen. Eta bertan geratu ziren, betiko. Gainera, askok maitasun handia hartu zioten Ingalaterrari, ingelesekin ezkondu ziren... eta bertan geratu ziren. Gerraren biktima ni? Oraintxe bertan hamaika izugarrikeria gertatzen ari da munduan gerren ondorioz: haurren esklabotza, emakumeena... Gaur egun, orduan bezain izugarrikeria handiak gertatzen ari dira. Nire kontu hau, historia atal bat da, niri eta nire familiari ikaragarri interesatzen zaiguna, eta Ingalaterrako herriak emandako laguntzaren adibide bat, laguntza humanitariora, ez politikoa. "Haurrak ziren, gure artean zeuden eta laguntza behar zuten!". Horixe besterik ez zuten pentsatu. Eta nahiz eta depresio garaia izan, oraingoa baino are handiagoa, ahalegina egin zuten, eta lagundu. Hori handia da. Orain, berriz, errefuxiatuen kontrako jarrera ikusi munduko bazter guztietan, eta ikusi 37ko haurrei eman zitzaien laguntza eta babesa, eta eredugarria da. Ez da, soilik, gertakari historikoa, giza ontasunaren erakusgarri baizik. Ez zaizu iruditzen? ■

www.argia.com/argia-astekaria
helbidean, elkarriketaren bertsio luzea.

kirolaz ba^{da}kit



Azpeitiarra, 2004an egin zuen debuta, atzelaria da. Zein da?

- Mikel Labaka
- Mikel Aranburu
- Ronaldinho

**Kirolzale
amorratua zarela
erakusteko prest?**

Hemen dituzu
1.500 galdera txartel
eta CD-ROMean.

**7 urtetik
gorakoentzat**

PREZIOA

15€

**ARGIAren
harpidedunek
-%15**



ESKAERAK
943 37 15 45
www.argia.com
denda@argia.com

• Meatzaritza erraldoia •

Mineralen konkista Hego Amerikan

Meatzaritzan jarduten duten multinazionalak begiz jota dituzte Andeetako mendiak. Argentinan eta Txilen ekimen erraldoiak finkatu dira eta etorkizunari begira proiektu andana dabil bueltaka. Javier Rodríguez Pardo ekintzaile ekologistak garbi du: “Argentinan ez da mineralik geratzen, horregatik ez gara inoiz herri meatzaria izan. Mineralak agortuak daude mundu osoan eta orain geratzen den apurraren bila datoz”.

GORKA BERASATEGI

URREA ETA ZILARRA izan ziren lehenengo. Azukrea, kautxua, kakaoa, kotoia eta kafea ondoren. Alfonbra altxa eta lur azpia zeinen aberatsa zen ohartzean, zinka, beruna, burdina, eztainua, kobrea eta, noski, petrolioak kanporantz bideratu ziren eta aditza lehenaldian jartzea ez da nahikoa.

Latinoamerikako herrialdeak independentzia prozesuaren bigarren mendeurrena ospatzen ari diren bitartean, askapen prozesua amaitu gabe dagoela ohartarazteko baliatu nahi dute aukera zenbait ahotsek. Meatzaritza erraldoia edo Megameatzaritzaren kasua adibide garbi bezain tamalgarria da.

“Mendietan geratzen diren mineralak sakabanatuta daude. Mineral horiek ateratzea errentagarria ez zelako ez dira ukitu orain arte, baina gaurko teknologiarekin esplotazioa errentagarri zaie enpresei, horretarako basakerria egin behar badute ere”, dio Rodríguez Pardok, *Vienen por el oro. Vienen por todo* (urre bila datoz. Denaren bila datoz) liburuaren egileak. Izenburupean: *Las invasiones mineras 500 años después* (Meatze-inbasioak 500 urte eta gero).

Meatzaritza erraldoiari izenaren tamainako teknikak beharrezkoak zaizkio. Mendian partikula txikietan sakabanaturik dauden mineralak biltzeko, lur eremu zabalak lehertu behar izaten dira –zenbait kasutan mendiak oso-osorik–. Eztandaren ondoren arroak batu eta errota berezietan xehatzen dira, harik eta irin apurraren tamainara murrizten diren arte. Partikula horiek salda kimikoz betetako putzu zabaletan nahastea da azken pausoa, metala gainontzeko materiatik banantzeko. Saldaren osagaiak zianuroa, merkurioa eta azido sulfuri-

koa izaten dira, besteak beste. “Megameatzaritzaren bitartez 20 tona arroka lehertu behar izaten da urrezko eraztun bat lortzeko. Ikargarria da ingurumenari egiten zaion kaltea. Mendiak lehertzeko unean harrotzen den hautsak mineralak askatzen ditu airera, eta inguruetan bizi den jendearen biriketaraino iristen dira beruna, merkurioa, artsenikoa edota uranioa. AEBetan, uranio meatzeen inguruetan frogatu zen haur jaio berri asko ezpainak zatiturik jaiotzen direla eta minbizi indizeak normala baino dezente altuagoak direla hauts horren ondorioz. Gure lurretan zabaldu nahi diren zenbait meatze mota berekoak dira”.

Rodríguez Pardok gaineratu duenez, meatzeetan erabiltzen diren azido eta toxikoak lur azpizko uretara isurtzen dira: “Horrek, noski, ura erabilezin bihurtzen du geroz eta eskasia handiagoa pairatzen duten gure nekazal eremuetan. Eta tontorretan, meatzeak egiteko, glaziarrek txikitzen ari dira Barrick Gold eta gainontzeko enpresak. Glaziarrek dira gure ur bermerik garrantzitsuen eta munduko ur geza erreserbarik handiena”.

Aktibista honek meatzaritza erraldoiaren aurkako borrokari eskaini dizkio azken hamar urteak eta ekologismoari azken hogeita hamarrak. Movimiento Antinuclear del Chubut elkarteak sortzaile da eta Red Nacional de Acción Ecologista-ren fundatzaileetako bat. Argentinan barrena asteak ematen ditu ustiapenen arriskuak zein diren herritarrei jakinaraziz eta erresistentzia elikatuz. Jardueraren ondorioek kezkatuta, herritar talde antolatuak eratu dira meatzaritza enpresek irrika agertu duten inguru bakoitzean. Aldi berean Barrick



Goiko irudian, Javier Rodríguez Pardo ekintzaile ekologista. Eskuinekoetan, meatzaritza erraldoiaren adibidea La Alumbrera arroan (Argentina). Mendian partikula txikietan sakabanaturik dauden mineralak biltzeko, lur eremu zabalak lehertu behar izaten dira, zenbait kasutan mendiak oso-osorik.



Gold eta gainontzeko multinazionalak, biztanleriaren oniritziaren bila, jarduerari buruzko mezu baikorrak zabaltzen ari dira. Komunikabideak, politikariak eta unibertsitateak dira meatzaritzaren ustezko onurak zerrendatzeko topatu dituzten adiskide leialak.

“Lanpostuak sortuko dituztela diote behin eta berriz. Hori da enpresen argudio nagusia, baina faltsua da erabat. Egia da meatzea egiten ari diren bitartean eskulan merkea behar dutela. Behin ustiapena funtzionamenduan hasten denean, ordea, prozesu guztia oso teknifikatua dago eta behar diren langileak kualifikatuak dira. Kanpotik datoz denak. Beraz, bertako jendearentzat ez dago lanpostu askorik. Are gehiago, gehiengoa nekazaritzatik bizi da eta jendearen ogibidea arriskuan ipintzen dute azidoen eta toxikoen isurketekin”.

Betaurrekoak kopetaraino altxa eta irribarre batekin kontatu du Rodríguez Pardok nola Patagoniako Esquel herrian multinazional baten proiektua birrindu zuten mobilizatutako herritarrek. Baina segituan jarri ditu betaurrekoak berriz sudurraren puntan, eta berriz zimurtu du kopeta, Andeen luzera ziprztintzen duten proiektuei buruz hitz egiteko: “Ikaragarria da meatze bakoitzak behar duen baliabide kontsumoa. Ustiategi bakar batek Argentinako probintzia batek adina argindar eskatzen du. Eta urari dagokionez, hiru edo lau metro kubiko segundoko. Hau da, familia batek egun oso batean kontsumitzen duena xahutzen du istant batean”.

“Mendiak lehertzeko unean harrotzen den hautsak mineralak askatzen ditu airera eta inguruetan bizi direnen biriketara iristen da beruna, merkurioa, artsenikoa edota uranioa”

JAVIER RODRIGUEZ PARDO, EKOLOGISTA

Mineralen ustiapena enpresentzako errentagarria izan dadin estatuek natur baliabideak oparitan eskaintzea ezinbestekoa dela uste du ekologistak. “Kasurik penagarriena Pascua-Lama ustiategikoa da [Argentinako San Juan probintzian. Txileko lurak ere hartzen ditu]. Gobernadoreak 500 KW-ko argindar sarea eraiki zuen Barrick Gold enpresaren meatzearen atariraino eta herritarrek hileroko kontu-agirian ordaindu zuten, ezarri zitzaizen tasa berriaren bidez. Argindarra ordaintzen diruz laguntzen die estatuak eta urarekin berdin gertatzen da. Gainera, glaziarretatik nahi adina hartzen dute”.

Pentsa liteke administrazioak horrelako erraztasunak eskaintzen dituela, meatze jarduerak estatuari eman diezazkiokeen diru sarrengatik. Uste hori okerra dela garbi dago Rodríguez Pardoren arabera: “Enpresek irabazien %3a uzten dute. Kontuan izan behar da, baina, herrialdetik irteten denaren deklarazioa helmugako portuan egiten dela eta ez irteerakoan. Deklarazioa zinpekkoa da. Eta beraz, edozein astakeria onartzen du paperak. Horrez gain, Patagoniako kasua lotsagarria da. Ondasunak hegoaldeko portuetatik esportatzeagatik %5eko zerga-hobaria eskura daiteke eta, orduan, estatuak %2a ordainduko lioke enpresari gure mineralak kanpora eramatearren”.

Hegoamerikan independentziaren bigarren mendeurrena ospatzen ari direnean, lapurretaren bosgarrena ere zenbatu daiteke. ■

Bakardadea izan



arrigarria da Anari nola gustatzen zaidan. Musika lana esan nahi dut, bere edertasun emakumezkorik gabe. Izugarri gustukoa dut. Bai, beno... bera ere bai, Anari, bere musikarik gabe. Ez dut, ordea, meritu handirik esateagatik. Anari bera baita bihotza eskaintzen diguna liluraren amil-degi berrirako eskaileratxoaren sastrakak kentzeko. Hura entzun eta ematen du zeruko sustraiak edozein unetan erori behar direla. Munduko desio-beldur guztien begirada ikusten dut haren begien atzeko aldean ia ukitzerraino duin eta oinazetan. Gure herriaren aztoramen bipolarrean zerbait onerako aldatzen ari dela pentsatzeko aukera bakarrenetako bat da bere sedukzio indarra. Inoiz etsitzen ez duen bere haserrean, bere ondorean, barruan duen atsekabe guztian ulertu ezin dudana hurbiltasun bat aurkitzen dut nik... Hainbeste gauza... Lurra aztertzen duen zientzia Geologia da. Mendia, oinarritik gailurreraino malda handia duen erliebe bakartua. Muinoa, malda txikia duen erliebe bakartua. Sumendi erliebe bakartuak sumendi bakartuak dira, eta jarduera bolkaniko puntual baten ondorioz sortzen dira. Uretatik kanpora ateratzen direnean, sumendiuharteak sortzen dituzte. Duela hilabete batzuk Anarik disko berria kaleratu zuen. *Irla izan* da bere azken diskoaren izenburua. Uharte alde guztietan urez inguratuta dagoen lur eremua da. Iruditzen zait idazleek ere badutela zerbait... zeratik... irlatik... bakardadetik... Pres-tu eta zintzoa den pertsona zibil oro zahardadez bakartua biziko dela segurua da; bere zahartzaroa isolamendu tragiko bat izanen da... Eta zer dago bere bakardadearen aldeko borrokari eusten dion zahar bat baino handiago eta heroikoagorik?, uste zuen Unamunok; artista aparta ez da inorekin ongi konpontzen. Nola konponduko da ba ongi,



José Luis Padrón

Rozas

Urkiza

bere zeregina lengoia berri bat izatea bada? Horregatik da arteen historia Babeleko historia. Ezin haien artean konpondu, bateraezin jarduten dira. Artista apartak bere bakardadea eraikitzen du bere buruaren inguruan eta han barruan itotzen da. Hori baita bere patua, esan zuen Ortega y Gassetek; orduko garai hartan norbait duin samarra bazen, bakar-

zalea zelako zen, murmuriatzen zuen Barojak; bere buruaren jabe den jendea beti dago bakarrik, berresten zuen Antoñanak. Idazteak, niretzat, inkonformismoa eta errebeldamendua esan nahi du, idazlearen asmoa protesta da, kontraesana eta kritika. Ez dago erdibiderik. Nik ez dakit ondo ala gaizki dagoen, horrela dela baino ez dakit, ihesbiderik ez dagoela: konforme ez dagoena izan da idazlea, da eta izaten jarraitzen du niretzat. Errealitateak asebeteta bizi den inor ez da ezer idazteko gauza, errealitatearekin ados eta adiskidetua dagoen inor. Idazlearen egitekoa gizakiak munduarekiko duen adostasun eza nabarmenetik jaiotzen da. Idaztea, berriz, matxinada etengabekoa da. Injustizia arau bihurtu den gizarte batean, hutsaren paradisu honetan, zabor ekonomikoaren eta intelektualaren sasoi honetan, autokonplazientziaren festa izorratzera dator idazlea, alarma piztera, egunerokotasuna gaizki eraikia dagoela esatera, atsedetik gabe, bizitza aldatu beharra dagoela. Nik ez dakit ondo ala gaizki dagoen, hori horrela dela baino ez,

eta idazle kuttunen artean izango dudala, soilik baldintza horiek guztiak betetzen baditu. Eta oso garesti ordaintzen dute, larrutik, bakardadetik. Horregatik ez naiz ni idazlea, zure urertzetik bizitzaren itsaso izugarri berrira noizean behin mezu zaharrak bidaltzen dituen naufragoa baizik. Pessoa gogoan, poeta izatea ere ez baita ene anbizioa, besterik da, bakarrik egoteko nire manera. ■



Injustizia arau bihurtu den gizarte batean,
hutsaren paradisu honetan, zabor ekonomiko eta
intelektualaren sasoi honetan, autokonplazientziaren
festa izorratzera dator idazlea, alarma piztera,
egunerokotasuna gaizki eraikia dagoela esatera,
atsedenik gabe, bizitza aldatu beharra dagoela





Xabier Mendiguren Elizegi

IDAZLEA

Zer gertatu zen Loiolan?

Atrebentzia guztiarekin, propaganda egiter a nator gaur. Izan ere, egundoko liburuak suertatzen zaizkigu batzuetan esku artean, editore-lanbide honetan.

Espainiako kultura ministro batek bere oroitzapenetan kontatu zuen, bere karguaren pribilegioez baliatu zela behin, Granadako Alhambra jauregia itxita zegoela, berak bakarka bisitatzeko. Era berean, gure ofizio xumeak horixe du ederrena: beste inork baino lehenago edukitzea begien aurrean egiazko harribitxiak.

Adibidez, gogoratzen naiz Azurmendik *Espainolak eta enskaldunak* tituluko paper-totxoa ekarri zidanean, esanez seguru asko ez zitzaiola inori interesatuko baina... eta zer-nolako emozioz irakurri nindoan makinaz jotako orri horitu haiek. Edo *Hmy illa nyha majah yahoo* bilduma miragarri hura iritsi zitzaidanean, *Kiromantzidxa* poema irakurtzean sentituriako zirrara, pentsatuz hura aurretik ia beste inork ez zuela ikusi, eta agian nire zuzenketa-proposamen batek testua hobetzen lagundu zezakeela. Edo autore ezezagun baten lehen testuan barnertzean, Elorriagaren *SPrako tranbian* esaterako, deskubrimendu harrigarri bat egiteak ematen duen ezusteko poza...

Askoz gehiago luzatu nezake zerrenda, baina bere horretan utziko dut, gaur dakarkizuedan lana aipatzeko: *Loiolako begiak*, Ima-



DANI BLANCO

nol Muruarena. Aurrekoak ez bezala, hau ez da literatura, primeran idatzia dagoen arren; kronika xehe bat da, 2006ko udazkenean Jesulagunen basilikan EAJ, PSE-EE eta Batasunako ordezkariak egin zituzten elkarriketei buruz, baita aurretik eta ondotik ETaren eta Espainiako Gobernuaren artean izandako hartu-eman eta gorabeherei buruz ere.

Muruaren berri dakiena ez da harrituko liburu izugarria dela esaten badut: Palestina eta Belfasti buruzko erreportajeetan agerian utzi zuen gatazkei seriotasunez eta gizatasunez heltzeko trebetasuna; urtetan bere prentsako lanak segitu ditugunok badakigu kazetari bikaina dela, elkarriketatzailer fina eta analista zorrotza. Liburu hau apartekoa da, ordea, orain arte oso jende gutxik zekiena kontatzen baitu. Urkullu, Egiguren eta Otegirekin izandako solasaldi luzeetan oinarrituta, azken bake-prozesuaren erretratu zehatza egin du, erdi ezkutan zeuden edo guztiz ezezagunak ziren datu ugari plazaratuz. Guztiok ziprztintzen gaituen egoera politiko petral honekin interesatutako edonorentzat ezinbesteko dokumentua.

Ondorioak ateratzea norberaren esku utziko dugu. Baita hurrengo saialdirako ikasgaia ateratzea ere. ■

«
Liburu hau apartekoa da,
orain arte oso jende gutxik
zekiena kontatzen baitu.
Urkullu, Egiguren eta
Otegirekin izandako solasaldi
luzeetan oinarrituta
»

TXANDAN

Andoni Mujika

Gora poloa



Ume-arotik, nire abertzaletasunbidean gida izan ditudan ametsak zalantzan jartzen dituzte eragile “abertzale” batzuek. Beti dago zerbait, beti dago aitzakiaren bat, oztoporen bat abertzaleon batasunerako, salto kualitatiboetarako. Bietako bat: edo eragile hauek ez dira abertzale edo euren txiringoa helburuaren gainetik jartzen dute. Egia da prozesuak ez direla norberaren etika guztietara egokitzen; egia da poloaren bul-tzatzaileek ere izan dezaketela euren polotoxa errentabilizatzekeo tentazioa, eta baita, “mendekuetarako” gogoren bat ere. Baina abertzaleok albisteak daukan

potentziala kalibratzera deituta gaude. Esango nuke hori dela begiratu behar dena batez ere.

Uste dut prozesua ez dela *inmakulatu*a izango, halere uste dut aitortu behar dela ilusioa pizteko eta hegemonia minimoa sortzeko daukan sedukzioarako indarra. Eta bestetik, katalizatzailea da: bat, abertzaleen arteko batasunak herri honetan sortzen duen ilusio historikoarekin eta bi, izpiritu abertzale *latente*arekin. Gauza batzuk ez dira lupaz begiratu behar, ezta betaurrekoz ere. *Begibistako*aren eskalan daude. *Zazpiak* baterantz hurbiltzen edo urrutiratzen gaituzten da kalkulu printzipala; aber-tzaleentzat, jakina. ■

Elkai Txapartegi

FILOSOFIAN DOKTOREA

Usurbil atez ate

Usurbilek hondakinen kudeaketa eredua irauli du. Duela urtebete hondakinen %28a jasotzen bazen bereizita, batez beste, orain %82a jasotzen da. Jauzi ederra da, 28tik 82ra. Handia.

Atez ateko bilketari esker ia dena birziklatzen da orain Usurbilen. Herri guztiek gauza bera egingo balute, ez genuke natura sakeatzen jarraitu beharko lehengaien bila. Ez genituzke zabortegiak ireki orduko beteko. Ez genuke errauste-plantarik egingo. Askoz modu orekatsua goan biziko ginateke.

Ezta, ez ginateke zinera joan, *Avatar* filmaren mundua ikusi eta hain triste aterako. Ez da ergelkeria. Interneteko foroetan milaka lagun dabil, lur jota, baineran sartu eta zainak irekitzekotan, lurrean bizi baino Pandoran nahiago dutelako. Na'vi-en bizimodua hain modu errealean "saboreatu" ondoren kosta egiten da, kosta egiten denez, gure bizimodu lurtarra ederretea.

Zekenkeria gainean eraikitako ekonomiak Gipuzkoa ere usteltzen du. Herritarren osasuna baino dirua gehiago maite duten politikariek eta enpresariek Zubietan errauste-planta ezarri nahi dute. Gipuzkoa ez da Pandora, baina zekenkeria lurtarrak gu ere mehatxatzen gaitu.



EGOTZ LASA

Zabarrak garelako egiten digu gainezka zaborrak. Usurbilgo alkateak zabarrak ez izateko eskatu die usurbildarrei eta hauek bikain erantzun dute. Nago beste herrietan ere bikain erantzungo genukeela. Ez badi-gute eskatzen badakigu zergatik den, gutxi batzuei komeni ez zaielako.

Orain arte Xabier Mikelek bakarrik erakutsi du Na'vi-en altura. Usurbil urdinez margotu du eta Oiartzun eta Hernani gehitzen bazaizkio, Gipuzkoan hiru herri izango dira garapen iraunkorra eta oreka ekologikoa zinez bilatzen duten herriak.

Nire buruari begiratzen diot orduan. Ez zait bidezkoa iruditzen ardura guztia Xabier Mikelen bizkar uztea. Hondakinen arazoa guztion arazoa da eta irtenbideak guztion laguntza eskatzen du, usurbildarrena eta usurbildarrak ez garenona.

Usurbildarrek badakite zer egin, otsailaren 27 eta 28an dute atez atekoaren inguruko herri galdeketa. Alkateak haien esku jarri du atez atekoa blindatzeko erabakia. Usurbildarrak ez garenok berriz hilabete daukagu usurbildarrei gure orde z bozka dezaten eskatzeko. Atez atekoa martxan jartzen hurrengoak izan nahi dugula aitortzeko.

Zenbat lore nahi ditugu gure lorategian? Zenbat muxu gure sudur gorrian? 28an 82. ■



Zabarrak garelako egiten digu

gainezka zaborrak. Usurbilgo

alkateak zabarrak ez izateko

eskatu die usurbildarrei

eta hauek bikain

erantzun dute



HIRUKO TXIKIAN
Joxemari Ostolaza



Izan zen urtarilaren 22ko batzearen zioa. Arrakastatsua oso.

Aroa ez alde, giroa bai. 2X2ren antza zuen, laborariek beren traktoreaz kilometro hotzak egingez, bertaratuek kolore bero berezia eman zioten manifiari. Ez zegoen inprobisatua, Iparraldean hondar urtetan militanteak gai izan dira bilgune taktikoak eratzeko, elkarrekin lan egiten ikasiz eta garaipen sozialak lortuz. Urte askotako lan helduaren uzta. Aurreko larunbatean Laborantza Ganbararen batzarrean jada bertaratukoan artean suma zitekeen AHTren aurkako giroa, astean zehar bide eta bazterretan adierazpena

AHTri ez

Irunerainoko ibilbideari. Pankartek salatzen zuten herri askoren presentzia arduratsua. Santiago zubitik hara, etxeetako leihatiletan ikus zitekeen begirale zenbait, Sanmartzialetan balkoiak banderaz janzten dituzten beraxek. Oraingoan saletako oihalak babes, aldeko aldarririk ez, balkoiak biluzik. Ez gintuzten animatzen, ez ginen ongi etorriak, ez ginen beren komertzioetako bezero ohikoak. Merezi lukete beren alardean AHTren aurkako konpainia bat antolatzea sarraski ekonomiko-ekologikoaren lekuko. ■

Gabriel Arestiren omenez

Bilbon, Arestiren egunean, 2009ko azaroaren 4an

*Aitaren etxea mundualizatu,
mundualizatu, mundualizatu*

I

Aitatziren xamarra
firrindika botatu
Buffalobill atorra
lehenbailehen hartu.

II

Gur' amatxiren gonak
firrindika botatu
Cowboyen Levys galtzak
lehenbailehen hartu.

III

Gur' aitaren txapela
firrindika botatu
Chevroleten kasketa
lehenbailehen hartu.

IV

Amaren espartinak
firrindika botatu
Nike markako tenizak
lehenbailehen hartu.

*Aitaren etxea mundualizatu,
mundualizatu, mundualizatu*

V

Gure ardien gaztak
firrindika botatu
Big Mac eta Ji.Al.Or*
lehenbailehen hartu.



DANI BLANCO

VI

Irulegik' arnoa
firrindika botatu
Coca-cola mundiala
lehenbailehen hartu.

VII

Xixtu eta xirulak
firrindika botatu
Kitara eletrika
lehenbailehen hartu.

VIII

Arestiren kantuak
firrindika botatu
Sir Michael Jacksonenak
lehenbailehen hartu.

*Mundualizatu, mundualizatu,
amerikanotu, amerikanotu*

IX

Betiko mutxikoak
firrindika botatu
Rock and roll eta saltsa
lehenbailehen hartu.

X

Olentzero maitea
firrindika botatu
New Yorkeko Halloween
lehenbailehen hartu.

XI

Axular ta Atxaga
firrindika botatu
Harry Potter inglesezt
lehenbailehen hartu.

XII

Xiberoko pasto'alak
firrindika botatu
Ta Western deitu filmak
lehenbailehen hartu.

XIII

Gure hizkuntza bera
firrindika botatu

*Like civilised people
speak american, you too.*

XIV

From Russian Vladivostok,
until to Tuamutu,
gizon berdin-berdinak
behar ditugu sortu.

*Aitaren etxea amerikanotu,
amerikanotu, amerikanotu
aitaren etxea alienatu,
alienatu, alienatu.*

*Ji.Al.Or: Jitez Aldatu Organismoak, transgenikoak.



Zinema

Ametsen fabrika da zinema. Errealitate berriak sortzen dituen, berez dagoena kolore berriz margotzeko. Lodzek (Polonia) kolore bat badu, hori grisa da. Eta arimarik badu, hori zinema da. Milaka istorio, ilusio, gertakizun, amets irten dira bertako faktoriatik. Europako zinema harrobirik emankorrena azken mendeotan burumakur dabilen herrialde handi baten zauriak goxatzen ari da.

Testua eta argazkiak:

ION ANSA

Lodz Poloniako ametsen fabrika

POLONIA HOTZAREN ERDI-ERDIAN, Varsoviatik ordu eta erdi exkaxera, lautada zabal batean galduta dagoen metropolia da Lodz. Kasualitatez bertaratu ez denak, ez du haren berri izango. Inork gutxik baitaki inon izan den judutar ghettorik handiena hemengoa izan zela: II. Mundu Gerran 200.000 judutar desagerrarazi zituzten, hiriko biztanleen herena. Edo Artur Rubinstein piano-jotzailearen jaioterria dela. Edo Europako hiririk zinematografikoena dela.

Lodzera, baina, propio etorri beharra dago, erdi-erdian adina dagoelako bazterrean, zokoan; inork edo zerbaitek Europa zahar honen iragan hurbil beltza ezkutatu nahiko baligu bezala. Lodz, Poloniako bigarren hiria, hiri grisa, fabrika abandonatu, tranbia zahar, auzo proletario, eraikin komunista, zentro komertzial eta judutar jatetxe,

etengabeko aldaketa den Historiaren testigantza eta erakustoki birjina da.

XIX. mendearen amaieran enpresa-gizon judutar batzuek ehungintza fabrika erraldoiak eraikitzea erabaki zutenetik gaur egungo hiri dinamiko eta modernoraino, Europako historiaren aro guztiak bete-betean bizi izan ditu Lodzek: imajina daitezkeen konkista, gerra eta sistema ekonomiko guztiak tokatu zaizkio. Horietako batek, komunismoak, hiriaren ikur bihurtuko zen artea bultzatu zuen: zinema.

“Diren arte adierazpideetan garrantzitsuenak da guretzat zinema” esan zuen Leninek. Jabetuta zegoen zinemak historia ez ezik, historiak zinema ere egiten zuela: zinemaren industria nazionalizatu eta ezagutzen dugun lehen zinema-eskola sortu zuen. Estatuaren kontrolpean, eskola sobietarrak Boltxebikeen ideiak sustatu zituen, eta irudien muntaia

bidez zinema lengoia berri baterako bideak sortu zituzten, besteak beste, Sergei Eisenstein eta Dziga Vertov-en mailako maisu handiek. Historiako lehen ametsen fabrika izan zen.

Leninen ondorengo ilustreenak, Stalinekin, Trotsky eta Leninen argazkiak manipulaturik Photoshoparen aitzindari izan zenak, ondo aski zekien irudiaren eta muntaiaren garrantziaren berri. Bera izango da, ziurrenik, zinemagintzan inoiz gehien inplikatu den agintaria. Bere interes politikoen aldeko arma gisa, edo nahiago bada, etsaien aurkako tresna modura, zinemaren aldeko apustu garbia egin zuen. Ondo atera zitzaion.

Nazismoaren aurkako gerla irabazita, Stalinismoa Europa Ekialdearen jabe egin zen. 1948an, aro horren une loriatsuenean, jaio zen Lodzeko Zinema, Antzerki eta Telebista Eskola. Estatu sozialista berriak garbi zuen zinema lagungarri zela sozialismoa eraikitzeko, eta zentzu horretan oso eragingarria izan zen politika abiarazi zuen. Ametsen fabrika berria Lodzen ezartzea, Varsovian beharrean, erabaki tekniko hutsa izan zen: hiriburuaren berreraikitze lan ikusgarriak zirela-eta, ego-kiagotzat jo zuten Eskola beste norabait eramatea. Behin-behineko erabakia orain arteko bihurtu zen arte.

Honela, Lodz gerraosteko Poloniako erdiguine kultural egin zelarik, zineman eta zinemaz bizi nahi zuten hainbat eta hainbat gazteren Meka izan zen. Erakarpen horrek bultzatuta, Roman Polanskik (*Rosemaryren haurtxoa* 1968, *Chinatown* 1974), 21 urte baino ez zituela, 50eko hamarkada erdialdera, hemen ekin zion ibilbide artistiko oparoari. Baina ez zen bakarra izan: Andrzej Wajda (*Katyn* 2008)

Hiriaren izena polonieraz "Butx" ahoskatzen da. Hortik datorkio "Hollylodz"

ezizena, ezkerreko argazkiko plakan bezala, beste hainbat lekutan ikus daitekeena.


Eskuineko argazkian berri, Mariusz Wlodarski.

Poloniar gazte honek Lodzeko Zinema Eskolan ikasten du: "Nire bizitza zinemagintzari eman nahi niola ulertu nuenean, burutik ez zitzaidan Lodzeko eskola ez zen beste aukerarik pasa".

eta Krzysztof Kieslowski (*Veronikaren bi bizitza* 1991, *Hiru kolore: urdina* 1993) moduko ikasleek nazioarteko sona lortu zuten. Gaur egun, sortu zenetik 60 pasa direla, New Yorketik Moskura mundu osoko ikasleak saiatzen dira sarbide frogagorrrak gaingaitzen.

Lortu dutenetako bat da Mariusz Wlodarski (Starachowice, Polonia, 1980). "Nire bizitza zinemagintzari eman nahi niola ulertu nuenean, burutik ez zitzaidan Lodzeko eskola ez zen beste aukerarik pasa. Ez nezakeen nire zinema karrera beste leku batean egitea imajina". Ez da txantxetan ari: Zinema Eskola benetako erreferentzia da ofizioa ikasi nahi dutenentzat, eta sona hori nazioartekoa bada ere, bertakoa ondo zaintzen badakite. Lodzeko eskolan aritu nahi duenak poloniera ikasi behar baitu derrigor. Bertan ikasteak, ordainean, zinemagintzan jarduteko abiapuntu ezin hobea ematen die ikasleei. Suedian filmatutako lan bat bukatu berritan, "Eskolan ikasitakoari esker, Opus Film-en, Poloniako ekoiztetzerik garrantzitsuenean, nabil produktore lanetan" argitu digu Wlodarskik. Baina ez da erraza horra heltzea: "Eskola oso gogorra da, asko ikasi behar da, eta film txarrak egiten badituzu kaleratu egiten zaituzte". Hiri grisak harrapatuta dauka Wlodarski: "Lodz ez da munduko hiri politena, baina arima bete eta dinamikoa du. Eta hori biziki maite dut. Pentsa, ikasketak medio etorri nintzen, baina azkenean hemen bizitzea erabaki nuen".

Ez da hiriko fabrika huts eta kale ilunek maitemindu duten bakarra. David Lynch zinemagile estatubatuarra 2000n iritsi zen lehen aldiz Lodzera. *Mulholland Drive* (AEB, 2001) filmaren zuzendariak Camerimage zinema fes-





tibalean hartu zuen parte urte hartan. Hiriaren tetrilotasunak eta berezko atmosfera zinematografikoak liluratuta, ez du hutsik egin orduz geroztik. Bere *Inland Empire* (2006) filmak bertan du abiapuntua eta sorrera. Fabryczna deritzon tren geltoki zaharrean, Frank Gehry arkitekto entzutetsuarekin batera, udazken honetan aurkeztu du kultur zentro erraldoia egiteko proiektua: Lynchek hemen eraikiko du, museo eta ekitaldietarako aretoen artean, bere zinema estudio berria.

Lodzek komunista du itxura eta zinematografikoa arima. Horregatik, bertan sortu ez bazen ere, ez da harritzekoa Europa ekialdeko zinema festibalik handiena, Camerimage, hiri honetan antolatzea. Eta kontraste zoragarrian, komunismoaren harrotasunerako eraikitako Antzoki Handian mendebaldeko filmak txalotzen dituzte, eta arkitekto komunistek errealismoz diseinatutako Hotel Centrum-en aurten, besteak beste, Bill Murrayk, Terry Gilliamnek, Carlos Saurak eta David Lynchek hartu dute ostatu.

Hiria zeharkatzen duen Piotrkowska kalea Europako kale komertzial luzeena da, ia bost kilometroekin. Art Nouveau eraikin, rock areto, markako denda eta jatetxe moderno artean, poloniar zinemagintzako izen handien izarrak daude lurtean txertatuta. Lodz polonieraz “Butx” ahoskatzen da. Hor-tik datorkio “Hollylodz” ezizena. Zinema festibalak eta mendebaldeko izarren bisitaldien jarioak itxura hori eman badiezaioke ere, ez dirudi Europa ekialde eta iparraldeko eraginez hornitzen den zinemagintza izendatzeko modu egokiena.

Azaleko distira horretatik pixka bat alden-duta, eta hori Lodzen nahiko erraza da, altxor xarmangarriekin topo egingo dugu: Kino Polonia, Piotrkowska kalearen erdian dagoen zinema areto bitxia; edo Charlie zinema, kale kantoi zaharkitu baten atzean kokatua, komertzialtasunetik urrunen egon daitekeen

**Urte osoan
zinemarekin lotura
handia badu ere,
Lodzek badu
urtero zita bat,
Camerimage
jaialdia, Europa
ekialdeko
zinemaren Meka
bihurtzen duena.**

**Bertakoa zaintzen
badakite Lodzen: Zinema
Eskolan estudiante izan
nahi duenak poloniera
ikasi behar du derrigor**

zinema etxea. Azken horretan, besteak beste, Euskal Herriko gatazkaren gainean egindako *Tiro bat buruan* (Jaime Rosales, 2008) filma eman dute aurten. Eta denetan altxorrik handiena, Zinematografia Museoa. Eraikin paregabe batean, Poloniar zinemaren historia, zinemagintzaren historia alegia, ezagutzeko aukera bikaina ematen duena. Zinema arnasten da Lodzen. Zinemak arnasten du Lodz.

Baina ez zinemak bakarrik. Wlodarskiren iritzira “Kultur mailan mugimendu ikaragarria dago, eta horrek ezagutzen dudana hiririk interesgarrienetakoa bihurtzen du”. Horren froga da, Donostiarekin lehian, 2016ko Europako Kultur Hiriburu izendatzeko hautagai izatea. Zinemaren bi hiriburu. Bi amets-gune. Amets egitea beharrezkoa baita errealtatea koloreztatzeko. Errealtatea grisa denean, batez ere.

Lodzko biztanleen ezkortasunerako joera naturalak, dena den, izan du azkenaldian aldatzeko motiborik: Manufaktura zentro komertzial erraldoia hiriaren berpiztearen ikur bihurtu da. Zentro komertziala baino gehiago hiriaren baitako hiria da. Herritar gehienei jaten ematen zien ehun fabrika zaharberritu eta pitxi arkitektoniko bihurtu dute. Zinemak, jatetxeak, dendak... Familian jai-egunak pasatzeko moduko lekua. Udar honetako artifizial bat jartzen dute, eta neguan izotz gainean irrist egiteko pista. Eta tartean, neoliberalismo basatienarekin elkarbizitzan, Arte moderno museoa eta Hiriko Historiarena. Arte, historia eta kapitalismoa dena batera. Eta kale pare bat harago auzune komunista, bere denda, tranbia eta apartamentu komunistekin. Urrutira joan gabe hilerri erraldoia, liturgia katolikoenak judutar enpresa-gizonen mausoleo ikaragarrien ondoan. Alde zahar abandonatua, hiriaren erdian dagoen miniaturazko aireportua eta gune berdeak nahi adina. Kontrastetik kontrastera, garai historiko, erlijio, sistema ekonomiko eta kultur identitate batetik bestera tranbiaz bost minutuko bidea baino ez dago.

Komunismoaren aztarna bazter guztietan dago; hiritarren elkarriketetan, esaterako. Batzuk nostalgikoak dira, eta gazteek ez dute atzera begiratu nahi. Kapitalismoa besarkatzen dute mendebaldeko bidezidor erraz gisa. Askatasunik ez dute eskatzen, edo hobe esanda, askatasuna atzerrira joatearekin identifikatzen dute. Historiak zigortua, konkisten Guinness errekor beltzaren jabe, auto-estimua zaurituta duen herrialdea da Polonia. Errealtateak gristua. Baina izango da eta badago baikortasunerako motiborik, gertatzen dena gertatzen dela, datorrena datorrela, martxan baitago ametsen fabrika. ■

Literatura

Ipurdia garbitzeko poesia

Nork esan zuen komunean xanpu potetako etiketak soilik irakurtzen zirenik? Eta nork poesia etxeko egongelan goxo-goxo etzanda soilik dasta zitekeenik? Komuna eta poesia ohoratzeko, hemen daukagu *Poesia komune*ko paperean Imanol eta Mattin Epeldereren eskutik. Bi plazer mota bateratuta, plazer bikoitza lortzeko asmoarekin. Eseri komunontzian eta egin tira komune

ko paper ilustratu honetatik. “Crackainean” egiteko prest al zaude?

LANDER MUÑAGORRI


Argazkiak: Amaia Belardieta (CC-by)

GARAI BATEAN, orain ez urte asko, hainbat etxetako komunetan egunkari zaharren orri puskak egoten ziren eginbeharren ondoren ipurdia garbitzeko. Komun-saioak sobera luzatzen ziren ordurako albiste ez ziren notiziak irakurtzen. Egun apenas ikusten da egunkari zaharrik paretako iltzetik zintzilik, komune

ko paperak hartu baitie leku. Hala ere, ezin uka daiteke komunean irakurtzen jarraitzen dugula. Xanpu poteetako etiketak, postontzian sartu dizkiguten publizitate orriak, egunkarietako gehigarriak edota Asterix eta Obelix-en azken abenturak oraindik komune

Komunean eta komunerako idatzita

Poemak idazten aspalditik hasi zen Imanol. Bertsolaritzan ibilitakoa, urte andana darama plazetan kantatu gabe, baina “errimetatik libratu eta solte idaztea” beti gustatu izan zaiola azaldu du. 2007ko urrian blog batean jarri zituen idatzi horiek, mundu guztiak irakurtzeko aukera izan zezan.



Imanol Epelde komunean eserita, erreztatzen. Hiru euskarritan bizi da *Komune*ko paperean: paperean, Interneten eta zuzeneko emanaldietan.

Hasieratik *Komune*ko paperean izena jarri zion Imanolek. “Komuna ohoratzeko modu bat izan zitekeela iruditu zitzaidan. Egia da askotan baztertu xamarra daukagula komuna; denok hitz egiten dugu logelaz edo jangelaz, baina ez komunaz”. Poema hauek, gainera, ez omen dira paper normalean idazteko modukoak. “Amorrazioz eta tristuraz betetako poemak dira asko, munduarekin haserre nengoen garaikoak” Imanolek azaldu duenez. Blogari izena jartzeko

garaian, hortaz, *Komuneko paperean* ezin ego-kiago zihoakion.

2009ko maiatzean, errezitaldiak ematen hasi ziren. Mattin anaia musikaren arduradun, eta Imanol poemak taula gainera ekartzeko lanetan, ez zuten ohiko poesia emanaldia izatea nahi. “Errexitatu baino gehiago, poemak nola bizi ditugun adierazten dugu zuzenekoetan” azaldu du Imanolek. Hitzari musika gehitu diote, musika klasikoa, baita emanaldietarako espresuki sortutako doinuak ere. Eta musikari gorputz espresioa eman. Aspektu horrek, gainera, garrantzi handia hartzen du euren errezitaldietan. Imanolek dioenez, “esaten ari garen hori publikoarengana ahalik eta ondoen” iristeak kezkatzen ditu, “helburua jendea hunkitzea baita, ez daitezela geratu ezer ulertu ez izanaren sentsazioarekin”.

Eszenatokia komun bilakatzen dute errezitaldi bakoitzean. Zer egokiago? Hala, emanaldia komunontzi baten biran izaten da, komuneko paperez inguratuta eta komuneko giroan oinarrituta.

Hitzetik ekintzara

Komuneko paperean ekimena sarean zegoen, baita taula gainean ere. Baina proiektuak izaera propioa, berezkoa har zezan, zer gutxiago lan horiek guztiak komuneko paperean bertan argitaratzea baino? “Esaten da gauza guztien inguruan idatzia dagoela, eta orijinaltasuna forman bilatu behar dela. Bada, guk hori egin genuen, nolabait erakargarri egin eta beste modu batean blogetik aparte ia inork irakurriko ez zituen poemak sozializatu” azaldu du Imanolek.

Hasieratik zeukaten poemak komun paperean argitaratzearen ideia buruan, baina ez zuten bideragarria ikusten. Harik eta Imanol Agirrek, Zarauzko Garoa liburudendako semeak, animatu zituen arte. “Bera izan zen proiektua aurrera atera zitekeela sinestarazi ziguna” dio Imanol Epeldek. Horretarako, Ithaka Design-eko Gari Iruretagoienarengana jo zuten, diseinuz eta ekoizpenaz arduraz zedin.

“Proiektua proposatu zidaten unean, halako analogia bat etorri zitzaidan burura. Txikitatik Arantzazuko egutegia ezagutu dut sukaldean, eta goizero irakurtzen nuen pasarteren bat” oroitu du Iruretagoienak. Egutegi hura bezala, ekimen hau ere behin bakarrik irakurtzeko zerbaitez izango zen, funtsean. Horregatik, hasieratik asko gustatu zitzaiola onartu du. Baina zailtasunak nabariak ziren, testuak komuneko paperean argitaratzea ez baita ohiko-

SKT Sekuentzia, komunean

“Komunean! Gauza asko dauzkagu komunean” abesten du SKT Sekuentzia taldeak *WC* kantuan. Eta kasu honetan ere, puntu komun bat daukate musika taldeak eta proposamen literario honek: Imanol eta Mattin Epelde anaiak. Aipatu abestia ere komunean daukate bi ekimen eta proiektu hauek, beste kantu eta poema batzuez gain. Hala ere, bi proiektu ezberdin direla argi utzi digu Imanolek.

Komunean daukate, baita ere, bi proposamen hauetan hitzak eta musika sortzen eta aukeratzen dituzten pertsonak. Imanol poesiaz arduratzen da, Mattin berriz soinu bandaz. Komunean agian gauza gehiegi daukate bi proiektu ezberdin izateko...

ena. “Lehen saiakerak hutsean geratu ziren; Txinan eta Japonian bila aritu ostean, hurbilagora jo genuen”. Colhagar eta beste komun paper enpresa batzuetan galdezka aritu ziren, baina denetan atek itxita topatu zituzten. “Azkenean, beste behin ere, Google izan zen salbatzaile lanak egin zituena, eta Madrileko enpresa batekin egin genuen topo”.

Orotara 300 komun-paper ilustratu inprimatu zituzten, eta orain arte publikoaren erantzuna positiboa izan dela azpimarratu dute. Durangoko Azokan, esaterako, aurkezpena egin eta egun bakarrean 100 ale saldu zituzten.

Komuneko literaturaren partaide

Komuneko paperean poesia irakurtzea posible dela ikusi dugu, poesiak ipurdia garbitzeko balio duela ohartu garen bezalaxe. Orain arte komunetan maitasun mezuak, aforismoak, errebindikazio politikoak eta bestelako idatziak topatu izan ditugu.

Tabernetan eta tren geltokietan, komun publiko guztietan literatura propioa egon badago. “Horretan inspiratu al garen? Horiek denak irakurritu dauzkagu, baina horien gehigarria izan liteke komuneko papereko poesia hau” hausnartu du Imanol Epeldek.

Poema hauek behin bakarrik irakurri ahal izango dira komun-papereko euskarrian. Hori arazo bihur liteke testuak gehiagotan dastatu nahi duenarentzat. Horregatik, www.blogari.net/27zapata?cat=6026 eta <http://komunekopaperean.blogspot.com> helbideetan ere badaude Imanol Epelderen poemak, euskarri digitalean. Komunera behin eta berriro, egunero joaten garela. Eta zergatik ez? Poema hauek ere behin eta berriro gozatzeko aukera ere egon badagoelako komuneko paperetik kanpo. ■

**Orotara 300 komun-paper
ilustratu inprimatu dituzte
eta Durangoko Azokan, egun
bakarrean, 100 ale saldu**

Liburuak

KRITIKA

Euzkadi merezi zuten.

Koldo Izagirre.

Susa. 104 orrialde. 15 euro.

Helduen literatura

Gema Lasarte



“Euskaldunen odolak ez du odolkiyak egiteko ere baliyo”

EUZKADI MEREZI ZUTEN Hordagok argitaratu zuen 1984an. Urte berean, beste batzuen artean, Itxaro Bordaren *Emakumeak idazle* (Txertoa), edota Anjel Lertxundiren *Urtero da aurten* (Erein) liburuek argia ezagutu zuten. Historiaren harira 2002an, Hasier Etxeberriarekin berbetan Koldo Izagirrek zioen, bere literatur ibilbidea buruan, saiatu behar zuela ahaleginak egiten gerora ere interesgarriak izango ziren gauzak idazten. Geltokietako literaturatik urrunduz, horren kontra borrokatuz eta baliabide linguistikoei muzin egin gabe. 25 urte pasatu dira eta pasaiatarrak zerbaitetan arrazoi izango zuen, izan ere, Susak berrargitaratu baitu eleberria. Eta argitalpen berriak kontrazalean laudorio festa eskaintzen dio: “Gaur idatzia bezalako perfekzioz iraun duela denboraren higiturik sufritu gabe, harrigarri moderno estiloaren indarrez”.


Nik esan behar banu, gauzak ez dira gehiegi aldatu duela 25 urtetik hona, izan ere, garai hartan bi bider leitu behar izan nuen eta oraingoan ere sekuentziak, denborak, eta norabideak lerratzeke bi aldiz irakurri behar izan dut. Koldok dio bere prosa poetikoa elipsiek zailtzen dutela. Eta hartara, irakurleak, idazleak abiatutako bidaian bidaiatze izan behar duela eta egiari zor, Izagirre ulertzeko irakurleak eraman handikoa izan behar du, ez zaio lana neke egin behar.

Baina bidaiak honetan espazioek berebiziko indarra hartzen dute: moilak, itsasoak, mendiak, baserri giroak, sagardotegiak, kaleak, trenak... denak ere, Pasaia-Astigarraga ardatz duten ingurumarian. Nobela sekuentziak osatua dago, sekuentzia bakoitzak bere tenore, bere istorioa. Horrela, 1920 eta 30eko hamarkadek hartuko dute hitza, eta ahotsa gehienetan Inazio Jauregik, bera izango baita kontakizun honen itzaina. Baina Inazio irakurleari ematen zaion pista bat da istorioak osatzeko eta denbora josteko, izan ere, nobela hasten denetik bukatu arte gertakizun historiko ugari kontatzen baita: baserrian estreinakoz argindarra sartzetik, Indalezio Prieto mitinetan hitz egiten entzuteraino... beste gauza askoren artean. Nire gusturako gehitxo.

Baina espazio, denbora eta sekuentzia bakoitza hizkuntzak bizi-tzen ditu eta nago literatur lan honek egiten duen ekarpenik nagusi-na, hizkuntza paisaiarena litzatekeela. Hizkuntzak egiten du Euzkadi merezigarri. Eta 25 urte eta gero, bere edertasunean dotore, gerra garaiko semantika dugu lekuko. Krika hautsiaren hotsa, fianbreraren soinu petrala... Moila aldeko euskararen doinua, ahozketasunaren freskura eta umorea: “Halaxe esan zun, neronek entzuna, euskaldunen odolak ez du odolkiyak egiteko ere baliyo”. Eta Más geyo, liburua leitu ta gero. ■

Augustin Zubikarainen biografia

Idazlea eta abertzalea: hara Augustin Zubikarai definitzen duten bi hitz. Joan den astean banatu zen ondarroarraren izena daraman saria, baina horretaz gain, izan da beste motiborik Zubikarainen izena prentsan agertzeko. Ana Urkizak haren biografia idatzi baitu *Elkar* argitaletxearentzat.



Augustin Zubikarai.
Ana Urkiza.
Elkar.
14 euro.

Andres Urrutia Euskaltzaindiako buruak izkiriatu du liburua-ren hitzaurrea, eta Urkizak berriz, 2004an zendu zen herrikidearen bizi-tzako ibilbidea errepasatu du. Kazetaritza-tik antzerkira, gerratik erbestera, euskalgintzaren ber-piztea... Mendea bete-bete-bizitu zuen Zubikaraik. ■

Erronkari eta Ansoko toponimiaz

Juan Karlos Lopez-Mugartza Iriartek lan mardula plazaratu du Euskaltzaindiaren Mendaur bildumaren barruan. 700 orrialdetik gora ditu Erronkari eta Ansoko toponimiari eskaini dion ikerketak, eta, esan beharrik ez dago, urte askotako lanaren emaitza da. Liburua atal ugarietan banatuta dago, alderdi teo-riko eta metodologikoak, historiko-geografikoak, semantikoak, morfologi-koak eta fonetikoak desberdintzeko. Toponimiari buruzko liburua izanda, gainera, mapa dotorez hornitu dute edi-zioa. Henrike Knörri eskaini dio libu-rua Lopez-Mugartzak, hura izan bai-tzen ikerketaren gidari. ■



Erronkari eta Ansoko toponimiaz.
J.K. Lopez-Mugartza.
Euskaltzaindia.
737 orrialde.
20 euro.

Diskoak

IKER BARANDIARAN



Gauaren zaindaria.
Potemkin.
Autoekoizpena.
Iraupena: 49'58".
11,50 euro.

Bi gitarrarekin, gaztetasuna eta eskarmentua batuta

OÑATIN PUNK-ROCK BIZIA eta gitarra beroak indarrean jarri zituen taldea bueltan dator bi urte isilik egon ostean. Latzenen sortzaile diren bi taldekidek metale-roen agurreko bira egin eta ostean baxu jotzaile berria bilatu behar izan zuten. Baina taldea indartuta dator: Aixibar abeslariak gero eta erregistro gehiago hartzen ditu eta bigarren gitarra jotzailea batu dute taldera; hala, gitarrek askoz protagonismo handiagoa hartu dute, eta pun-

teatze dezente dago. Estiloei dagokionez, iraganeko punk-rock adrenalinikoa albo-ratu eta hard-rock klasikora hurbildu dira, intentsitateekin eta giroekin jolastuz. Gainera, doinu itsasorrak lortzeaz gain, tar-teka 70eko hamarkadako soinu psikodeliko eta pisutsuagoak ere jaso dituzte. Aloña azpian, The Cult, TRBNGR, Black Sabbath eta beste ere aurki daitezke.

www.myspace.com/potemkinband

Potemkin

«Mutiko gazte baten ilusioa dugu eta taldekide berriekin ikuskizuna biziagoa izango da»

Denbora luzea pasa da azkeneko aldiz taldearen berri izan genuenetik...

Bai. 2007ko udan jotzeari utzi genion, Joxe Mari eta Iker Latzen taldearekin bueltatu eta "Infernu-ko atean" azken bira egin zutelako. Jarraian Joxe Marik esana zeukan taldea utziko zuela eta baxu jotzaile berria lortu genuen. Eta, bide batez, betidanik buruan izan dugun bigarren gitarra jotzailea ere aurkitu genuen. Horren ostean, guztion artean abestiak

egin eta grabaketarako prestatzen egon ginen.

Zer da "laino rocka"?

Laino rocka ikus-entzuleek eta guk droga moduan konektatzen dugunean sortzen den emozio gehiketa da. Potemkin ez da ezer entzulerik gabe!

"Diruak du pozoitu" rock eszenako gauza asko? Askok aldatu da musika eszena Latzenen hastapenetatik?

Diskogintza gainbeheran dago. Horien balioa galdu da, taldeek bere

gain hartu dute, batez ere baliabide teknikoak merkatu direlako. Sorkuntza gehiena autoekoizpenera joan da eta Internetera; hortaz, orain askoz bitartekari gutxiago dago eta hori ona da. Guk autoekoizpenaren alde egin dugu. Gaur egungo taldeen eskaintza handia eta kalitatezkoa da. Kontzertuak egiteko ere aukera asko dago. Alde txarrean, pena da musika ordenagailuko artxibo bihurtu izana, eta kontzertuetan publiko gutxiago dagoela.

Esnatzean eta Berreskuratuk 70eko hamarkadako rock pisutsua, psikodelia eta stonerraren arrastoak dituzte.

Bai, agian orain arte Potemkinek egin dituen abesti desberdinenak dira, baina oso gustura gaude bien emaitzekin. Soinu desberdina, geldoagoa, baina une psikodeliko eta riff gogor asko dituztenak. **Iraganeko kontzertu erritmo handia berreskuratzeke asmoa duzue?**

Bai. Mutiko gazte baten ilusioa dugu eta taldekide berriekin ikuskizuna biziagoa izango da. Neguan eta udaberrian gaztetxe eta areto txikiak lotzen gabiltza eta udarako jaietan jotzea da helburua. ■



Ezpalak

JON TORNER

Krea-ren komikiaren gida, Joaquin Reyesen eskutik



GASTEIZKO Krea kultur zentroak Komikiaren 3. Gida argitaratu du. Mauro Entrialgok eta Abarrotsek egin zituzten aurreneko biak, eta Joaquin Reyes ilustratzaile, diseinatzaile grafiko eta umoristak plazaratu du hirugarrena. Eskuliburu txiki hori euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez argitaratu du Kreak, eta sortzaile hasiberriei zuzendurik dago bereziki. Komikiaren Gidarekin batera, 27. Komiki

Lehiaketaren erakusketa aurkeztu du Kreak. Otsailaren 17ra bitartean, saritutako lanak Araba aretoan izango dira ikusgai. Informazio gehiago: www.kreared.com.

Otsailaren 5ean hasiko da Iruñeko Ikuspuntu jaialdia



IRUÑEKO Golem-Yamaguchi eta Saide-Carlos III. zinema aretoek eta Kondestablearen Jauregiak jasoko dituzte Ikuspuntu Nafarroako Zinema Dokumentaleko Nazioarteko Jaialdiko proiektzioak. Orotara hamalau herrialdeetako 21 dokumental lehiatuko dira Sail Ofizialean, hamalau film luze eta zazpi labur. Otsailaren 5etik 13ra bitartean egingo da Ikuspunturen 6. edizioa, INAAC institutuak antolatuta estreinakoz, Josetxo Cerdanen gidaritzapean. www.puntodevista.navarra.es

Euskal zinemagintza protagonista Gasteizko Zinemasteian

OTSAILAREN 22TIK 27RA egingo den Gasteizko Zinemasteak ikus-entzunezkoak ulertzeko modu berriak partekatu eta horien gainean gogoeta egitea du helburu, "betiere, gidoia, produkzioa edo errealizaziotik abiatu eta banaketara arte". Egitasmoak hiru zutabe izango ditu: zenbait euskal zinemagileren filmen proiektzioak, ikus-entzunezkoak ulertzeko modu berriak biltzen dituzten proiektuak (*El cosmonauta...*) eta tailerrak.

Luther Blisset-en izenpean zenbait idazle, ekintzaile eta artistak 1999an argitaratutako *Q* nobela historikoa euskaraz plazaratu du Gatazka Kolektiboak. "Noor daki" izenpean itzulirik plazaratu dute XVI. mendean girotutako eleberria, eta Interneten doan deskargatzeko moduan paratu dute: www.ddtgatazka.com.

Iratxe Esnaola donostiarrak irabazi du Augustin Zubikarai nobela laburren lehiaketa, *Galerna* lanarekin. 5.400 euro jasoko ditu Esnaolak, eta udaberrian saritutako eleberria plazaratuko du Elkarrek. Argitaletxe horrek eta Ondarroako Udalak antolatzen dute Zubikarai lehiaketa. Iratxe Esnaola Donostian jaio zen 1983an. Kazetaritzan lizentziatua da EHUn, eta Literaturaren Teorian eta Literatura Konparatuan Granada Unibertsitatean. Gaur egun unibertsitateko irakaslea da Txileko Santiagon. Hauxe izango du argitaratuko duen lehen lana. Lau lagunen arteko harreman sare nahasiaz ari da *Galerna*.

Gure Irratiaren webgunea (<http://www.gureirratia.eu>) martxan jarri dute berriz, itxura eraberrituarekin. Iazko irailean Turkiako nazioari gorazarre egiten zion hacker batek matxuratu zuenetik, webgunea eraberritzeko probestu dute aukera.



● **Fertxu Izquierdo idazleak Deia**ren *Ortzadar* gehigarrian, *Telebista antenetan atsedena hartzen dute txoriek* poesia liburuaz: «Lurralde atseginaren egiten zait poesia. Lerro gutxitan gauza ugari esan dezakezu, sentimendu asko adierazi, hitzekin jolastu... (...) Izenburu horretan ezkutatzeko da liburuaren metafora. Gaur egun mota guztietako jendea bizi da hirietan, leku guztietatik etorriak. Eta jende hori guztia hiriko egungo bizimodura egokitzen da. Honen guztiaren metafora, hiriko bizimoduaren metafora dira txoriek, zeren eta txoriek aspaldi iritsi baitziren hirietara eta berehala egokitu ziren; zuhaitzak ez dituzten lekuetan telebista antenetan, esaterako, bilatu dute babesas».



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

Abarrak

MIKEL ASURMENDI

Zeharbidetan Hendaiarat

Zeharbidetan diskoa (Pamiela, 2005). Irigaray-O'Breskey. Hendaian zuzenean (02/13), J. A. Irigaray-Bixente Martinez.

ARTELANAK, arte izanen bada, espazioan eta denboran gaindi iraun behar du, baita gure barnea inarrosi ere. Jose Angel Irigarayren *Zeharbidetan* diskoa, kasu, halakoxea delakoan nago. Nago diot, diskoak nire baitakoa luzaz iraun-irauli duelako.

Zeharbidetan lanean ez duzu musika soilik kausituko. Munduko zeharbidetan jasotako eleek ildo sakonak urra ditzakete zure gogoan. Ez alferriki, Irigaray poetaren beraren eleak baitira bideetan zehar eramaten zaituztenak.


Musika ez da modaz pasatzen, berau daramaten eleak betierekoak direnean. Musikaren azkeneko irrintzia izan gabe, eleak daramatzen mintzoak espazioa gainditzen duenean denbora gainditzen du. Eleok betiereko diraute. Eleok, bere-bereak izaki, betiereko dira Irigarayren ahotsean.

Ilusioz bizi da oraindik ere poeta. Ametsaren eta erralitatearen arteko gatazkan. Itxaropenak eta harmoniak sosegatzen dute aldian-aldian. Alta bada, bere burua "izan gintezkeenaz" itauntzen segitzen du. Poesiari esker bizi da, baina poesiarekin dudakor betiere.

Abian da poeta berriro ere mundura. Herria bera- rekin darama, bazterrera laga ezin dituen munduko plaza guztietan kausitu nahi du herria. Harmoniaren xerka ibili dabil zeharbide desorekatuetan. Joan badoa, bila dabilen bidaia- ria, itzultzeko abian da alabaina.

Joan eta jin. Partitu eta itzuli. Maitasuna eta askatasuna. Irigana eta oraina. Biharkoari esker bizi da Irigaray, biharkoari begira altxatzen da haren ahotza: aldian goibel aldian kontent, jostetan batzuetan kontrobertsietan itoa bestetan. Nola edo hala badoa. Zeharbidetan. Bitasunean. Askatasun eta maitasun helezinaren xerka, menturaz eta desbenturaz. Zeruz edota itsasoz. Urdinean betiere.

Zu zeu ere irakurle, bildu zaitezke urdinean. Etorri Hendaiarat. Otsailak 13 dituela, herriko Mediatekan, arratsaldeko 17:30etan. Irigarayren mintzoak idazkitxo honen antzeko eleak iradoki dizkizuke ausaz. Iruñeko poetaren eleekin –*Zeharbidetan* diskoko Antoni O'Breskey musikariaren behar- rean– eta Eibarko Bixente Martinez musikari trebearen aireetan kulunkatuko zara. ■



Vitoria-Gasteiz

Gasteizen euskarazko
hauek ez galdu:

PRINCIPAL ANTZOKIA

Aitarekin bidaian
Hika teatroa
Otsailak 18, 20:30

Kepa Junkera + Melanius quartet
Marxoak 3, 20:30

TXOROLEKU

Liburuzaina esku eta larr
Otsailak 27, 17:00, 18:30

GAUEKOAK

Mikalea Pitón kontzertuan
Otsailak 20, 21:00 Hikaleneoan

Iruditxakoa
Liam
Otsailak 12, 20:00, Aldabe
Mr. Brooks
Otsailak 19, 20:00, Aldabe
Krea zinemateka: Check point rock
Otsailak 26, 22:00, Dendaraba
Gizakien seme-alabak
Marxoak 5, 20:00, Aldabe

GOZATU EUSKARAZ LIBURUTEGIETANI

Gazte eta helduentzat
Bestela ondo... ezta?
Jon Urza, Bakarriketza.
Otsailak 26, 19:00, Arriaga

Gurasoentzako ipuin lantegia
Ixabel Millet (lantegia)
Otsailak 20, 11:00, Aldabe

Haurrentzat Mozorro jala
Apika. Ipuin kontalaria
Otsailak 9, 18:00, Abeltzuko
Otsailak 11, 18:00, Lakua

Bi ozeri esku eta larr
Antzerkia, txotxongiloak eta ipuinak
Otsailak 25, Iparralde

Michael Enderen txotxongilo txikia
Antzerki lantegia
Otsailak 20, 11:00, Iparralde

Txintxin magikoa
Asier Kidam, magoa
Marxoak 3, 18:00, Judimendi



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

ANA ZAMBRANO

Kike Amonarrizen umorea



WWW.SEION.NET

	X		A		J		C		O		T	Z	
J	E	A	N		A	L	D	A	G	A	I	L	U
	K	L	A	S	K	A		L	I	S	S	A	R
B	E	T	I	R	A	U	T	E		T	I	N	I
	Z	A							P	E	B	A	
A	Z	A								G	O	I	
	A	I	O							G	U	R	I
A	T		R							N	O	E	L
A	R	I	G	O	R		U		F		J	A	I
	T	I	T	U	L	U		T	X	A	L	E	T
M	U	S	U	F	E	T	U		S	E	H	I	


Naiürobütarra ^{rekin} bidaia jolas

"Nairobitarra: mundua
ezagutzeko jolasa" k
tokian tokiko
bitxikeriak
ezagutzeko aukera
eskaintzen dizu.

33 €

Harpidedunek:
-15%

Aukeratu
kontinentea,
ibilbidea, bota dadoa
eta ekin bidaiari.



8 urtetik
gorakoentzat

eskaerak

943 37 15 45 • denda@argia.com
Ohiko salmenta puntuetan

 **argia**

Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

Jauzi libreko marka hautsi nahian

WWW.SME.SK



Felix Baumgartner, estatuaren eskuineko eskuan zutik.

FELIX BAUMGARTNER austriarra espezialista da eraikin altuetatik jauzi egiten. Orain gutxi Frantziako Millau biaduktutik eta Malaysiako Petronas dorreetatik salto egin zuenean, mundu osoko albistegietan azaldu zen. Orain estratosferara igo eta handik 36.500 metroko altueratik jauzi librea egin nahi du, mundu marka berria ezartzeko. Orain artekoa Joseph Kittinger militar estatubatuarra du: 1960an 31.300 metrotik salto egin zuen.

Saltoak, markaz gain, badu interes zientifikoa: jauzian soinuaren abiadura gainditu nahi da, eta egoera horretan gorputzak duen portaera aztertu. Jauzilaria helio-kapsula batean igoko da estratosferara eta eskafandra berezia jantzita duela botako du bere burua. Jauziaren segimendu medikoa eta zientifikoa Jonathan Clark-ek, espaziorako hegaldietan espezialista den medikuak, egingo du. Besteak beste, aztertu nahi dute zer baldintzat egin lezaketen astronautek jauzi, Lurrera itzultzean istripua gertatuz gero.

Erleen menuak zerikusirik izan dezake euren populazioa gutxitzearekin

MAIZ ENTZUN DUGU erleen populazioa jaisten ari dela, AEBetan eta European batez ere. Frantzia hainbat azterketa egiten ari dira ildo horretan, eta badirudi erleen elikaduran arazoaren gako batzuk izan daitezkeela. Cédric Alaux ikerlariak zuzendutako ekipoak 80 erle-kolonia aztertu ditu eta desberdintasun nabariak topatu ditu beraien artean. Oro har, askoz ere erle osasuntsuagoak dira egunero polena bost landaretik edo gehiagotik eskuratzen duten erleak, landare bakarretik eskuratzen dutenak baino. Hain zuzen ere, glukosa oxidasa deitua erle osasuntsuetan ugariagoa da besteetan baino; antza, aipatu glukosak erleen sistema immunologikoa indartzen du.

Hori dela eta, Frantziako Ekologia Ministerioak udaberri honetan erleen bideetan lore ugari landatzeko proiektua onartu berri du. Oraingo 250 kilometro baino izango ez badira ere, proiektuaren amaieran 12.000 izatea espero dute.



ENTERTHEOCTOPUS.WORDPRESS.COM

Saturnoko ilargi batean lanbroa dago

Titan Saturnoko ilargirik handiena da eta orain arte, Lurrarekin batera, gainazalean likido ugari aurkitu den unibertso leku bakarra. Likido hori metanoz eta etanoz osatuta dago, eta kantitate handietan ageri da. Orain, zientzialariek lanbroa ere topatu dute Titanen. <http://ttiki.com/9637> (Gaztelaniaz)

Airea katalizatzaile litiozko baterietan

Energia metatzea aspaldiko arazoa da. Egun, litiozko bateriak dira helburu hori dutenetan ezagunenetakoak; orain katalizatzaile gisa airea erabiltzen duten litiozko pilak aztertzen ari dira eta, antza, esponentzialki hobetzen dira ohiko baterien ezaugarriak. <http://ttiki.com/9638> (Gaztelaniaz)

Sagar mota zaharrenetako bat aurkitu dute

Malus orientalis Asia erdiko sagar espezie ezaguna da. Georgia eta Armenian dau den barietateen inguruko ikerketa batek sagarrondoaren eboluzioaren aztarna berriak eman dizkigu. <http://ttiki.com/9639> (Gaztelaniaz)



Zientziari buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua zientzia@argia.com helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

web garapenak

multimedia

aholkularitza

edukiak

ideia batetik errealitatera

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Landareak

JAKOBA ERREKONDO



JAKOBA ERREKONDO

Sakaila egin

Kaiku deitu eta kaikuak egiteko gaia den urkia (*Betula sp.*) iraintzen dut. Astakilo deituta asto gizagaixoak. Nola arraio izendatu zuhaitz erai-leak? Hona urtero, udazkeneko neguero, maki-na bat zuhaitzek pairatu behar duten zigor kriminalaren beste adibide bat. Dotoreziaren izenean zuhaitza jo eta enborreraino soilteza da bihozgabe krudel hauen inausketa gogoa. Itsusi, itxuragabe mozten dute egurra. Zuhaitz mardula bere lotsaren mailara, eta ezinezkoa bada ere, haien ustez haren behera, makurtzeko era bakarra egurra ematea dela jakitun. Argazkikoa zume negarti gazte segaila (*Salix Babylonica*), sakaila egina. Hori gutxi eta sarraskia azkarregi egin dutenez zuhaitzak puja berriak bota ditu, hauek ez dira negurako zaildu eta berri-berritan ederki erreko ditu hotzak. Kristauen jai okaztagarrienen sasoian, aizkoraren epaia eman diona hurbilekoaren torturaz, auzokoaren eskubideetaz, ahaidearen minaz, ondokoaren ezinaz, hurreko gaixoaz, senide zanpatuaz, hurkoaz ariko da, amona Joxepak zioen eran, ahoa neurri! Eta zuhaitz haurridea?

Ogiaren matxinada

OGIAK, lizunaren soineko loredun harroaren usaina baino aurrekoak baditu. Ailisa ez geratzeko hantutzen ari denekoa, labekoa, erre berriarena...

Erre berritan du ogiondoaren, *Artocarpus Altilis* ogiaren arbolaren fruituak ogi itxura eta honen tankerako mamia. Izenak ere argi dio: grezierazko *artos* (ogi) eta *karpos* (fruitu). Ogi-zuhaitza deitu izan da, baina ogi-arbola zuzenagoa izango da, ezta? Ogiondoa beraz... Fruitua ogi handi baten eite eta tamainakoa da, sei kilokoak ere jaso izan dira. Jateko era ugari dago: frijitua, labean errea, ego-sia... Geurean artirinak adina tripa-zorri isilaraziko zituen ogi honek gure antipoda inguruan. Ondo tropikala da ogiondoa: 12°-tik behera hostaila galtzen du eta izugarritzko ur pila behar du, Euskal Herri hezeenean urtero ditugun 1.500 l/m²-tik gora, alazankua.

Berez malaysiarra da ogiondoa. Bere jaleen adiskide mina izaki, haien migrazioetako txalupetan mundu tropikal guztietara zabaldu da gero: Asiatik Polinesian sakabana-tu, gero Erdialdeko Amerikara, ostean Hegokora, ondoren Karibe osoa, Afrika... Istorio eder askoak eman dituzte bidaiok. Istorio haue-tan bat da ezagunena, makina bat liburu, film eta kontu erditzea era-gin duena.

Ingelesak Jamaikako esklaboei jaten emateko Tahititik ogiondoa ekarri eta landatzea pentsatu eta Hego Amerikari buelta eman-go zion ontzi bat pleitatu zuten. Antartida alde hori gogorregi gertatu eta Afrikatik barrena bide luzeenetik joan behar. Halako batean Tahitira iritsi eta landareak ateratzeko hilabeteak sasoi onaren zain. Marinelak bertan gozo, baten bat ezkontzeraino... Buelta-koan matxinatu, kapitaina bere aldekoekin eta landare guztiak uretara bota eta Tahitira bueltatu ziren. Bertan lagunak hartu eta garaiko mapetan gaizki kokatua zeukaten Pitcairn uhartean Utopia deitu kolonia sortu zuten. Gaur egun dituen bederatzi familietako 50 biztanleetako batzuk haien ondorengoak omen dira.

WWW.DOCTORMACRO1.INFO



Jamaikako esklaboentzat ogiondoa zeramaten *Bounty* ontzian.



Landareei buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua landareak@argia.com helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.

Denboraren makina

NAGORE IRAZUSTABARRENA

Itsuen herrian Basilio II.a errege



WWW.WIKIMEDIA.ORG

BIZANTZIO, 976KO URTARRILAREN 10A. Basilio II.a (958-1025) enperadore izendatu zuten. Militar, estrategia eta administratzaile bikaina izan zen, eta ahultzen ari zen Bizantziar Inperioari aurreko 500 urteetan ez bezalako hedapena eta indarra handiena eman zizkion. Gerran garaipen handiak lortu arren, borrokak ez zuen itsutzen –bera behintzat, ez–; horrenbestez, zentzu praktikoak hala eskatzen zuenean, bake itun onuragarriak sinatzen ere bazekien.

Horixe egin zuen errusiarrekin. 979. eta 989. urteetako matxinadak indarrez itzali zituen baina, azkenean, Vladimir I.a Kievekoarekin bakea adostu zuen. Arabiarrekin, aldiz, ez zuen negoziatziorik behar izan, erraz hartu baitzituen mendean. Hala, pixkanaka, Bizantziok galdutako zenbait lurralde berreskuratu joan zen.

Baina bulgariarrak etsai gogorragoak ziren. Bulgariako Samuel erregeak Tesalia inbaditu eta Larisa hartu zuen 985.ean. Hurrengo urtean, Basilio II.a, 30.000 soldaduko armadaren buru, Sredets (egungo Sofia) hartzen saiatu zen, baina ez zuen hirian sartzea lortu.

Bizantziarrek atzera egin zutenean, bulgariarrek eraso zieten; Basilio II.aren porrota lotsagarria izan zen eta ez zuen berehalakoan ahaztu.

Bulgariarren eta bizantziarren arteko gerra 1002an hasi zen eta hamabi urte iraun zuen. Urte horietan bi indarrak pareko ibili ziren. Baina 1014ko uztailaren 29an, Kleidioneko guduan, Samuel erregea handik zenbait kilometrorra zegoela, Basiliok armada bulgariarra suntsitu zuen. Hortik aurrera Basilio II.ari *Boulgaroktonos* esan zioten, hau da, bulgariarren hiltzailea. Balkanetako gerra luze horretan bere soldaduek bulgariar asko hil zituzten, noski, baina agian egokiagoa litzateke enperadoreari “bulgariarren itsutzaille” esatea. Izan ere, Kleidioneko gudua amaituta, 14.000 bulgariar soldadu hartu zituen preso eta ia guztiak itsu utzi zituen. Ehunetik bati begi bakarra kendu zion, begibakarrek itsuak Samuel erregearenganako bidean gida zituzten.

Bulgariarren erregeak ederki zituen bi begiak eta, kondairak dienez, itsuen armada menperatua iristen ikusi zuenean, tristurak jota hil zen.

Arrastoak

Petrolioaren krisiak sortutako figuratxoak

70EKO HAMARKADAREN hasieran, petrolioaren prezioaren igoerak kinka larrian jarri zuen jostailuen industria. Plastikoen prezioa, petrolioaren eratorria izanik, zazpi aldiz biderkatu zen. Zenbait jostailu ezagun, *hoola hop*-a esaterako, ez ziren bideragarriak.

Geobra Brandstätter enpresa alemaniarrek Hans Beck diseinu-buruaren produktuetako bat ekoizten hastea erabaki zuen: *Playmobil* panpinatxoak. Txikiak ziren –eta, beraz, merkeak– eta jolaserako aukera asko ematen zituzten. 1974an aurkeztu zituzten Nüremberg-en eta bi urte geroago *click* izenez iritsi ziren Hego Euskal Herriko jostailu dendetara. Ordutik 2.000 milioi *playmobil* saldu dira mundu osoan.

Orain Parisko Les Arts Décoratifs museoak 7,5 zentimetroko figuren 35 urteko historiari egin dio errepasoa, ekainaren 9ra bitartean zabalik egongo den erakusketan.

WWW.HAGAH.COM



Sei Argia Sari berri komunikazioaren aldarri

TXITXARDIN BELTXA, urtarrilak 29. Euriak ez du treguarik eman, baina bertara bildutakoek badute aterpea, lagunartera biltzeko arrazoa, hizketarako aitzakia. ARGIA Sariak 2010 dira. Euskal gizartearen eta kulturaren ordezkari za zabala hor dago, euritik salbu, tan-tan pean, urteroko zitari hutsik egin gabe.

URKO APAOLAZA

Argazkiak: Dani Blanco

“ADISKIDEOOK, lagunook, lankideook, garbitzaileook, zikintzaileook, ipurdi milizkatzaileook...” “*Mirri eta Txiribiton!* Nahikoa da!”.

Ezin zuen beste modura izan, *Txi-rrik* bere bi lagunei errieta egin behar izan zien, eta horrela bukatu zen 2010eko ARGIA Sarien banaketa. Merezimenduzko saria merezita dutela ederki demostratu zuten Xabier Otaegik, Jose Ignazio Ansorenak eta Txema Vitoriak; berdin jartzen dutelako kameraz betetako jatetxe dotore.

Urtero moduan, euskal kazetaritzako, kultur munduko eta gizarte nahiz politikako ordezkari ugari izan zen Txitxardinen ARGIA Sarien aurtengo edizioaz gozatzeko (ikus hurrengo orrialdean). Horien artean sarituak, jakina, batzuk urduri, gehienak inoiz baino gusturago... Goiko argazkian dituzue aurtengo saridunak. Itxaro Bordak, Prentsako sariaren irabazleak, ezin izan zuen ekitaldira agertu, baina saria eman ondorengo bere inpresioak bideoz jarraitu ahal izan zituzten bertara joandakoek. Saridun guztiek egin zituzten hitz batzuk eskerrak emanez

edota beren ibilbidea laburbilduz, eta baten batzuek uea aprobeztatu zuten ziria sartu eta bromak egiteko. Agin Rezola Irratiko sariaren irabazleak, esaterako, ez zuen aukerarik galdu; hara zer bota zuen Info7ko kazetariak: “Lankideek esan didate gehiegi ez harrotzeko, gero harrokeria hori garesti aterako zaidala... Baina total, zer pagatu beharko dut, “argia”ren faktura?”.

Umorea eta giro alaia nagusitu ziren, beraz, aurtengo sarietan. Eta hori guztia errematatzeke, ARGIAko “koroak” emanaldia inprobisatu zuen, jatetxe osoa orfeo erraldoi bilakatuz: *Prentsa libre bizia beti Argia! / Gora prentsa zaharra eta berria...*



2010eko ARGIA sarituak, ezker-eskuin. Zutik: Galder Gonzalez eta Nagore Vega (*Grebaorokorra.info*, Internet alorreko saria); Gotzon Garaizabal eta Mertxe Mujika (AEK-ko matrikulazio kanpaina, Publizitate saria); Jose Ignazio Ansorena, Txema Vitoria eta Xabier Otaegi (*Txi-rrri*, *Mirri eta Txiribiton*, Merezimenduzko saria). Makurtuta: Fakun Aznarez (*Grebaorokorra.info*); Eriz Zapirain (*Zai zoi bele*, Telebista alorreko saria); Agin Rezola (Info7ko *Bostetako diligentzia* eta bertsolari txapelketako jarraipena, Irratia alorreko saria). Argazkian Itxaro Borda falta da (Prentsa alorreko saria).

Argia.com-en, zuzenean

Badira bizpahiru urte ARGIA Sariak bideoz ikus daitezkeela. Baina aurtent beste urrats bat eman eta lehen aldiz zuzenean ikusi ahal izan da ekitaldi osoa Argia.com-en. ARGIAko lankideek, Jexux Mari Irazuren laguntzaz, saio berezia eskaini zuten sarean jarraitu ahal izateko: sarien banaketa, aurkezpenak, elkarrizketak... Paperezko prentsa eta Interneteko komunikazioa uztartzeko bidean pauso bat gehiago. ■

www.argia.com/multimedia
helbidean, sari banaketaren bideoa eta argazki-galeria.



(1): Bazkალაurreko *lunch* txikia. Lehen planoan: Joan Mari Torrealdai, Joxi Basterretxea eta Iban Arantzabal berriketan. (2): Nagore Vega, Iban Arantzabal, Mikel Iturria eta Gorka Julio. (3): Gonbidatuak ARGIAko zuzendari Xabier Letonaren hitzaldia entzuten. (4): Miren Legorburu eta Mertxe Colina. (5): Gorka Bereziartua ARGIAko kazetaria sari banaketaren bideozko zuzeneko emanaldia aurkezten. (6): Lehen planoan, Maider Egües eta Maria Gil. (7): Martxelo Otamendi, Iñaki Uriá, Joselu Blanco, Dorleta Alberdi eta Arantxa Kaltzada. (8): ARGIAko lankideak eta Miren Urbietta sopranoa ekitaldiaren amaieran kantuan.

Xabier Letona, ARGIAko zuzendaria:

Paperaren eta Interneten arteko korapiloa

HEMEN, ZUEN ARTEAN, badira Madrilgo Auzitegi Nazionalera atzera eta aurrera ibili zaretenak euskarazko egunkari bat sortzeagatik edo berau egiteagatik. Gaizkile gisa. Bada, jakin ezazue, hemen gure artean izatea ohorea dela guretzat.

Euskal gizarteak ere horixe bera adierazi dizue azken asteetan erakutsitako elkartasunaz. Buka dadila behingoz esperpentoa eta izan dadila benetako justizia esparru batean beharko lukeen moduan: absuluzioarekin eta horrek dakarren guztiarekin.

Eta prentsa eta kazetaritzaz jarraituko dut, baina oso ikuspegi desberdinetik helduta. Gaur egun kazetariak barra-barra doaz langabeziara, Estatu Batuetan, Espainian, Frantzian... Euskal Herrian ere ematen dira hala-koak, jakina... Baina euskal prentsan ez horrenbeste, nik bederen ez dut pertzepzio hori, edo ez da oraindik publiko egin, edo ez da oraindik heldu, hori ere posible da, baina ematekotan ere ez dut uste besteen maila berean emango denik. Krisia bada hori da aurretik batzuk diru asko irabazi dutelako eta gaur egun ez delako horrela irabazten. Eta euskal prentsan ez da dirurik irabazten.

Bai, *Gen Gasteiz* itxi da, Nafarroan oso egoera larriak biziko dituzte batzuk, baina horietan krisiaz gain bestelako faktoreak ere badira, Nafarroaren kasuan politikoak esate baterako.

Orduan, nola egin aurre egoera horri? Modu ugari egongo dira, jakina, eta guk ez dugu formula magikorik, baina gustatu izan zaizkit ikusi ditudan bi hausnarketa:

Bata amerikar kazetari izar haue-tako batena da, Jeff Jarvis, kazetari-tzaren muinari heltzen dio eta dis-kurtso probokatzailea du. Esaten du, Internet eta teknologia berrien bultzadaren ondorioz, kazetaritza

jadanik ez dela istorioak kontatzea bakarrik.

Nik uste dut horrek muina izaten jarraitzen duela: hau da, errealtatean dagoen zerbait jaso, norbere galbahe-tik iragazi eta hartzaileari eskaini. Baina Jarvisek badu arrazoirik ere, batez ere Internetek dakarren aldake-

"Muina izaten jarraitzen du errealtatean dagoen zerbait jaso, norbere galbahetik pasa eta hartzaileari eskaintzea"

ta guztiaz ari denean. Hala dio berak:

"Gure burua zabaltzen badugu, kazetariak erraztatzaile gisa ikusi ditzakegu, komunitatearen antolatzaille moduan, irakasle, administrazaille, iragazki, tresna sortzaile gisa, algoritmoen sortzaile gisa"

Gu behintzat hor gabilta ea nola asmatu papera eta Internetekoa uztartzen, eta apurka bada ere aurre-rapausoak ematen. Gaur ekitaldi hau

DANI BLANCO



Internetez zuzenean eskaintzea ere aurrerapauso horietako bat da.

Eta eguneroko borroka horretan, kazetaria eta honek behar duen azpiegiturari buruzko azken hausnarketa bat. Interesgarria da gainera, erreflexioa datorren lekutik datorrelako. Enric Gonzalez da hausnarketaren egilea, *El Pais*eko kazetaria, azaroa bukaera arte egunkari horretan bost egunetan egiten zuen oso zutabe kritikoa eta orain Jerusalemara bidali dute korrespontsal gisa, mihi gaiztoek diotenez zigor gisa:

"Dagoeneko ezin gara enpresa handiekin fidatu, beste interes batzuk dituzte. Informazioa eskaintzen jarraitu ahal izateko kazetariak euren artean antolatu beharko dira, kooperatibetan, elkarteetan, edozein modutan"

Erredakzioan ibili genuen atzera eta aurrera hitzaldi zati hau, eta pentsatu nuen ez gaudela gaizki posizio-natuak.

Baina inpresioa dut bakarrik ahulak garela, topatu behar direla aliatuak eta bide horretan 2009an esperientzia polita izan genuela. Bertsoa.com, Info 7 eta Argia.com-en artean Hitzetik Hultzera telebista saioa egin genuen. Eta gero BECe-ko finala ere zuzenean eman genuen, ETBk bezala. Hiru txiki elkartu eta handienaren ondoan jarri ginen.

Eta hurrengorako utziko dut gaur egun, informazioari dagokionez, sarean dagoen kontraesan nagusietakoa. Sareak papera zokoratzen du, baina sareko informazioa nagusiki, oraindik ere, paperetik bizi da. Bistan da, denok ere badugu zereginik korapiloa askatzeko. ■

ARGIA Saria 2010 banatu aurretik emandako hitzaldiaren pasarteak dira honakoak.

Arriskatzeak merezi duenean

Arriskua, originaltasuna, berritasuna, apustua... Aurtengo sariak emateko arrazoen artean behin eta berriz tartekatzen diren hitzak dira horiek. Beren lanean, ekimenetan eta proiektutan konfidantza izan eta askatasunetik jardun duten sei pertsona/talde saritu nahi izan ditugu, euskarazko komunikazioari egin dioten mesedea eskertzeko.

URKO APAOLAZA

LANDER ARBELAIZ



bea irakurtzen duten euskal herritarrek ere. Hala nola, alaba eta neskalaguna, idazten duenean bere “ezin negona nekez jasaten” dutelako.

Telebista Eriz Zapiain

IKUS-ENTZUNEZKO Komunikazioak ikasten hasi zen, betidanik gustatu izan zaiolako mundu hori, zehazki esateko, dokumentalena. Eta hara, mundu horixe bilakatu du ogibide Eriz Zapiainek (Donostia, 1974). ARGIAN trebatu zen kazetaritza lanean hiru urtez eta horren ondoren eman zuen pausoa ikus-entzunezko-eta, 2001eko *Salda Badago* izeneko

Prentsa idatzia Itxaro Borda

LITERATURAREN ingurumarian Itxaro Bordak (Baiona, 1959) egindako lanak ezagunak zaizkigu. Bere langintzaren atal hori prentsan publikatutakoarekin uztartu izan du idazleak betidanik. Betidanik idatzi izan baitu astekari, hilabetekari edota egunkarietan, izan ARGIAN, izan *Berrian*... Hain zuzen, azken hedabide honetan egunero argitaratzen duen zutabetxoari erreparatu diogu prentsa idatziaren ARGIA Saria emateko. Bere iritziak luma zorrotzez eskribitzen baititu, erreferentzia originalak eskaintzen ditu, modu askea erabiliz eta hizkuntza birsortuz. Galdetu diogu egunerokotasunak zer ekartzen dion: “Egunero mirakulu bat gertatzen da, plazer bat da. Batzuetan gaiak aurkitzea zaila zait,

baina beti ateratzen da zerbait”. Bere esanetan, gaiak aurkitu behar horrek, iritzia azaldu behar horrek, “hurbiltasuna” ematen dio gertakariekin eta halako “permakortasun” bat norberaren bizitzari buruz. Honela esan digu baionarrak: “Lagun batek erraiten zidan, beti horrela idatziz norberaren bizia instrumentalizatzen zela, eta uste dut arrazoi zuela. Hori baikorra da enetzat bederen”.

Harriduraz hartu du saria, berak ez baitu idazten sariak irabazteko “ikusiz zein lekutik idazten dudan, bereziki Iparraldetik” dio Bordak. Hala ere, plaza librean, ARGIA eskertu nahi izan du, bai eta bere zuta-



DANI BLANCO

proiektuarekin, karreran euskal rock erradikalaz egindako bideozko elkar-
rizzketa batzuk baliatuz. Hain zuzen,
proiektu hartatik sortu zitzaion Ez
Dok Amairuren historia jasotzen
duen *Zai zoi bele* dokumentala egiteko
gogoia.

Dokumental horretan Zapirainek
egindako lana saritu nahi izan du
ARGIAk, besteak beste, gaur egun ez
delako erraza patxadarekin, mimoz
eta su baxuan egindako lanak aurki-
tzea telebistan edota ikus-entzunez-
koen arloan. Lau urte pasa ditu Zapi-
rainek proiektuarekin “ez
esklusiboki, jakina”, baina lau urte,
eta horrek arriskatzea esan nahi du,
azken emaitzak merezi duela sines-
tea. Bidelagun hainbat pertsona izan
ditu: Amets Arzallus aurkezle-gida-
ria, Juantxo Sardon eta Carlos Seda-
no kameralariak, Xabier Zapirain
errealizadorea... “Eskerrak eman
nahi nizkieke Orio Produksioak-eko
Unai Ibarbiari eta Martin Ibarbiari,
apustu garbia egin eta ikusi zutelako
dokumentala egin beharra zegoela.
Beti izan dut haien babesa”.

Irratia Agin Rezola

ARGIA Saria irabazitako beste batek
bultzatu zuen Agin Rezola (Astiga-
rraga, 1985) irratigintzaren mundura
murgiltzera: Jon Telleriak. Kazetari-
tza ikasi eta Gaztesarea atarian aritu
zen hainbat urtez, eta Euskadi Irra-

JON URBE / ARGAZKI PRESS



tian bekadun ere bai. Ondoren
Info7 Irratian informatiboak ematen
hasi zen, baina Rezolaren esanetan
beste zerbait egiteko gogoia zuen
“informatiboetako zurruntasunetik”
ateratzen zen zerbait, libreagoa, eta
horren ondorioz *Bostetako dilijentzia*
magazin saioari ekin zion, ordura arte
egindako beste lanetatik guztiz ezberdina: “Askoz
pertsonalagoa izan da, nire seilua darama,
nirea den zerbait bezala sentitzen dut”
dio esatariak.

Horrez gain, Info7n Euskal Herriko
Bertsolari Txapelketaz egindako jarraipena
ere saritu nahi izan dio ARGIAk Agin Rezolari:
“Irratiarentzat interesgarria zen, baina aldi
berean Bertsotzale Elkartearentzat ere bai,
azken batean ez baitzegoen txapelketaz
jarraipen zehatza egingo zion irratirik”.
Sari honekin, kalean jendeak askotan esan
diona baieztaturik ikusi duela azaldu digu
Rezolak, lan ona egin zutela txapelketan
zehar.



Internet Grebaorokorra.info webgunea

MAIATZAREN 21EAN greba orokorra
egin zen Hego Euskal Herrian euskal
gehiengo sindikalak deituta: “Deialdia
egin eta bost minutura sortu zen ideia”
dio Galder Gonzalezek. *Grebaorokorra.info*
webguneari da. Twitterren eta Interneteko
beste informazio kanaletan jendeak
proposamenak egin eta tresnak
baliatzen hasi zen egun horri jarraipen
berezia egiteko: zuzeneko bideo emisioak,
Twitterreko etiketa, irudiak... Pixkanaka,
auzolanean eta kolektiboki garatutako
proiektua sortu zen horrela. Emaitza
ikusgarria izan zen: “Greba egin ez
zutenek ere beren iritzia eman zuten,
eztabaida gure webgunera ekartzea
lortu genuen”

Grebaorokorra.info erakutsi zuen
hedabide txikiek, elkarlanean eta teknologia
berrien laguntzarekin, posible dutela
hedabide handiek ematen ez duten
informazioa eskaintzea askoz baliabide
gutxiago izanagatik ere, eta urrats bat

izan zen bide horretan. Orduan egindako lanak aurrera begira utzi du arrastorik: “Proiektu horretan parte hartu genuenok harremantetan segitu dugu eta orduan sortu zen sareak balio izan du, adibidez, *Egunkarialibre.info* webgunea sortzeko. Gainera, beste hedabideek guk erabilitako tresnei arreta jartzeko ere balio izan zuen” dio Gonzalezek.

Publizitatea AEKren matrikulazio kanpaina

EZ ZEGOEN beraien aurreikuspenetan horrelako saririk irabaztea, baina Mertxe Mujika AEK koordinatzailearen esanetan matrikulazio kanpaina on baten errekonozimendua izan da eta pozez hartu dute. AEK, *euskara ikasteko biderik laburrena* izenarekin publizitate koloretsua eta umoretsua egin dute: “AEKren ezaugarriak islatzen saiatu gara, hurbiltasuna eta kalitatea islatzen –dio Mujikak–. Euskaraz bizi, lan egin, maitatu eta ikasi daitekeela azaldu nahi izan dugu” Abadiñoko Dida komunikazio enpresarekin elkarlanean egin dute kanpaina, urte asko daramate beraiekin lanean, bi urtero egiten den Korrika eta bestelako ospakizun edo kanpainei oihartzuna emanez, eta *feeling* hori nabaritzen dela esan digu euskaltegiko arduradunak.



Matrikulazio kanpaina ondo joan zaio AEKri, Mujikaren hitzetan “faktore asko egongo dira matrikulak igotzeko, baina horietako bat aurtengo publizitate erakargarria izan delakoan gaude”. Dena den, horrelako ekimenak behin eta berriz egin behar direla ohartarazi du AEK-ko koordinatzaileak “jendeak badaki euskaltegiak hor daukela, baina beharrezkoa da hori bergogoratzeara”. Horrez gain, bere ustez garrantzitsua da holako kanpainak euskararen sustapenerako eta zabalpenerako duten lotura azpimarratzea.

Merezimenduzko saria Txirri, Mirri eta Txiribiton

HOGETA HEMEZORTZI urte daramatzate Xabier Otaegi, Jose Ignazio Ansorena eta Txema Vitoriak pila-zoarena egiten. Hasieran *Kixki Mixki eta Kaxkamelon* eta gero, *Txirri Mirri eta Txiribiton* izenarekin. Kasualitatez hasi zirela kontatu diote ARGIARI, euskararen arloan umeei begirako ezer ez zegoelako, “basamortua” baizik. Euskara sustatzea eta bultzatzea zen giltza, eta lortu dute gaur arte zeregin horretan aritzea, haurrak eta ez hain haurrak umorearekin, bihurrikeriekin eta bromekin euskarara ekartzea.

Hain justu, 25 urte pasa dira euskal telebistan lehen aldiz agertu zirenetik, *Don don kikilikon* saioan, eta duela gutxi ospatu dituzte zilarrezko eztei horiek beren kolaboratzaile ugariren artean. Ez zen nolanahiko pausoa izan 1984 hartan eman zutena, ETB oraindik pixoihala jantzita zuela zebilen, baina hala ere ausartu ziren ordubeteko saioa egitera. Horregatik guztiagatik, merezi dutelako, ARGIA Sarietako bat hirukote honentzat izan da aurtan. ■



Iazko haizeak etorkizun haziak

Aurki iritsiko da ARGIAren harpidedunaren etxera 2010eko Euskal Kulturaren Urtekaria. Azalean sorgin-belar koloretsua badauka ere, mamia ez da putz eginda haizetan galtzekoa: balio baitu, iaz gertatu zena ezagutzeko bezainbeste, geurtz euskal kulturak norantz jo dezakeen ikasteko.

GORKA BEREZIARTUA



Ez baikara atzera begiratu zale, iraganari zer edo zer berria ateratzeko ez bada. 2009ak euskal kulturari eman diona errepasatzen badugu, ez da nostalgikoak garelako, ez da denbora lata hermetiko batean gorde nahi dugulako. Euskal Kulturaren Urtekaria hori baino askoz gehiago da: esparru bakoitzean izan diren gertakariak garrantzitsuenak biltzen ditu ordena kronologikoan, hasi antzerkitik eta zinemaraino; baina horri testuingurua emateko, aditu banaren analisia ere ekartzen dugu, historia, jakina denez, ez baita gertakarien pilatze hutsa.

Ondo daki hori Iñigo Aranbarrik. Baita ezin garela beti iraganari begira bizi: *Iraganak oinak berotzen ez (apunte ezkeor batzuk sortzen segitzeko)* jarri dio izenburu Urtekarian egin duen 2009ko kronikari. Kultur politikei buruzko ikuspegi zorrotza ekarri du, aurrera so egiteko gonbi-

ta, “orainaren etxea altzari, habe, zoru itsusiz osatzen” ari zaigula uste duelako. Itxaro Bordaren saiakera Aranbarriren gogoeta osatzera dator. Antton Lukuren *Euskal kultura?* liburuko gogoetetatik abiatuta, kultur kolonizazioaz eta Iparralde-Hegoalde arteko harremanez irakurri pertsonala eskaini du.

Eta aurrerantzean, zer? Denboraren makina baten antzera hasi

zen 2009ko Urtekarian Joerak saila, bihar etorriko denaren printzak gaur eskaintzeko asmoz. Horretan ahalegindu dira, besteak beste, Ainhoa Agirreazaldegia, Iker Barandiaran, Juan Ignacio Perez-Iglesias, Edorta Jimenez, Bea Narbaiza, Lontxo Oihartzabal eta Iñigo Fernandez Ostolaza, nor bere esparrutik.

Baina egindakoa ere baloratu behar da. ARGIAkook baloratu nahi dugu, behintzat. Eta 2009ko euskal kulturako urteko pertsonen TOP10a eskaini dizugu, Urtekariaren erdiko orrialdeetan. A, eta ez ahaztu euskal kulturaren aurkibidea: kultura, euskalgintza, aisia, ikuskizun eta komunikazio alorreko 8.000 erreferentziatik gora, bakoitza dagokion helbide, telefono eta bestelako datuekin. Ezinbesteko tresna, herri honetako kulturgingintzan dihardutenentzat. ■

Nola eskuratu

- Harpidedunek etxean jasoko duzue, datozen asteetan, eta doan. Gainerako irakurleek, 18 euroan duzue. Eskaera telefonoz egin dezakezu, 943 371545 zenbakira deituta, edo internetez, www.argia.com/denda helbidean.
- Otsailaren 15etik urtekariako eduki denak argia.com-en izango dituzu, kontsultatzeko moduan.

Ritxi Lizartza

*Hitanoa. Mintza hadi, lagun! liburua*ren egilea

«Hitanoa estandarrera ekarri gabeko azken osagaia da»

Hitanoa ikasteko metodologia sortu du Ritxi Lizartza (Donostia, 1965) itzultzaile eta zuzentzaile zailduak. Ahozko testu bizien kontrako borrokan sortzen zitzazkion korapiloak askatzen hasi eta lokarriak lotuta ekarri du hikari buruzko liburua plazara.



MIEL A. ELUSTONDO

Argazkia: Zaldi Ero

“Eztabaidarako abiapuntua ezarri dut, ardura duten erakundeek hitanoaren erabilera gure gizartean arau dezaten”.

Hitanoa. Mintza hadi, lagun! lanaren egile, Ritxi Lizartza, hainbat urtean *Goenkale* telesaileko euskara zuzentzailea izan da. Hitanoa? Zertan dakar Ritxi Lizartzak hitanoa plazara?

Seguru asko, barruko harrak asetzeko asmotan egingo nuen. ETBn lanean ari nintzela, gertatu zitzaidan hitanoarekin dexente topo egitea. Batetik, estandarraren eredia defendituz, eta, bestetik, Euskaltzaindiak araututako adizkia, aurrerapauso nabarmena izanda ere, nahikoa ez zelako. Esan nahi dut Euskaltzaindiak adizkiaren morfologia arautu zuela, bai, baina haren eremu sozioafektiboa eta morfosintaktikoa ez zituela arautu. Guk, berriz, horiexen beharra geneukan.

Eremu sozioafektiboa eta morfosintaktikoa. Zertaz ari gara?

Eremu sozioafektiboa da, nolabait esateko, nork norekin zein egoeratan erabiltzen duen. Tradizioak agintzen du horretan, baina hura aldatzen ari da gaur egun eta inportantea da zehaztea. Gaur egungo gizartearen joeretara egokitzea, alegia... Eremu morfosintaktikoari dagokionez, hitanoa berezia da, esaldi nagusiari dagokio, ezin da edozein testuingurutan erabili. Tradizioak agintzen du horretan ere, ez da lege inposatua. Leku askotan tradizioak indarra du oraindik ere, baina beste hainbatetan ez. Eremu morfosintaktikoa arautu ezik, irizpide eza nagusituko da ikus-entzunezkoetan, antzerkian, irakaskuntzan eta bestetan. Ondorioz, gerta liteke irakasle batek bere tradizio eta hizkeraren

arabera irakastea hitanoa, edota argitaletxeak nobela argitaratzea —estandarrean argitaratzea, jakina—, baina hitanoari dagozkion formak egilearen jatorriaren arabera agertzea liburuan. Gertatzen baita horrelakorik.

Horregatik zure lana.

Bai. Proposamen teorikoa egiteko asmoa nuen, bildutako kasuistika antolatu, ordenatu eta adierazi nahi nuen. Eta arautu beharra ere aldarrikatu. Bada, hori idatzita nuenean —entsegu laburra edota artikulua luzea osatzeko lain material—, jendea ikastaro eske etortzea gertatu zitzaidan. Eman ere egin nituen ikastarok eta haien bidez, askoz ere gehiago ikasi dut hitanoari buruz, eta, harrezkero, liburua ariketa praktikoz

hornitu ere bai... Ikastaroen bidez osatu dudan alderdi praktikoak autoikaskuntza bidea errazten du. Teoria izan behar zuen lehen artikululu hura gidaliburu da gaur egun, eta konbentzituta nago hirugarren atala ere beharko duela, hau da, beste jauzi bat. Liburuan eztabaidarako abiapuntua ezarri dut, ardura duten erakundeek hitanoaren erabileragure gizartean arau dezaten.

Arautu beharraz ari zara.

Bai, baina ez esate aldera, hitanoa gure gizartean dagoelako baizik, esparru guztietan egon ere. Ikastolak Kilometroak festa antolatzen duela, hika jarriko dizu leloa. Amaia Zubiria batek, *Berrian* zutabea idazten duelarik, hika ari da. Xabier Gantzarain, berdin... Eman dezagun Bide Ertzeanek Jose Luis Otamendiren poema musikatzen duela: hika ariko da. Eta ezin ahaztuko dugu irakaskuntzan ere garrantzi handia duela. Hitanoaren erabilera, zuzena ala okerra, gizartean dago, kalean. Gizartea arauemaileen aurretik doa, ohi denez, baina arautu beharra dago.

Zein irizpideren arabera arautu?

Hasteko, kaleko hizkera jasotzen zuten Donostia aldeko antzerkilariak izan ditut erreferentzia inportante: Toribio Altzaga bat, Marzelino Soroa eta beste. Kaleko hizkera baliatu zuten antzezlanetan. Ez dira goi mailako lanak, baina aintzat hartzeko modukoak. Gaur egun *Goenkale* egingo lukete haiek... Garai hartako formatua antzerkia zen, eta euskara oso ongi jaso zuten, oso euskara ederra, batzuetan erdarakadaz bete, korapilorik gabekoa, baina txukuna. Haiek garai hartan erabiltzen zuten hitano eredua eta gaur egun erabiltzen dena, oso ezberdinak dira gauza askotan: orduan muga morfosintaktikoak errespetatzen zituzten, gaur ez bezala; gaur egun Donostian entzu-

ten den *di(n)ate* forma *diten/k* zen orduan, hau da, estandarrak onartu duen forma... Bestalde, *euskara.net*-en eta *armiarma.com*-en sartu eta hitano adibide mordoa ageri dira. Bi iturriok funtsezkoak izan zaizkit, ez balira, bizpahiru urte geroago aterako genukeen liburua.

1994an arautu zuen alokutiboa Euskaltzaindiak, Beñat Oihartzabalek egindako proposamenaren arabera. Zer diozu adizki haren formaz?

Hara, hitanoa, estandarrera ekarri gabeko azken osagarria da. *Goenkale*n ari nintzela, lortu genuen ETBk Euskaltzaindiaren eredu hura onartzea, eta bateko eta besteko gidoilariak erabiltzen zuten hitanoa batura ekartzea. Horrelaxe lortu genuen Joxe Mari pertsonaiak aste

"Goenkale, bere horretan onartu genuen Beñat Oihartzabal euskaltzainaren lana, hasieran gizartean sortu ziren katramilak gorabehera"

osoan hitano koherente bat erabiltzea. Alegia, guk bere horretan onartu genuen Beñat Oihartzabalen lana, hasieran gizartean sortu ziren katramilak gorabehera. Oso ekarpen handia egin zuen, ona, eta logikoa. Durangoko Azokan liburuarekin nintzela, Etxarriko bat etorri zitzaidan, esanez zergatik ezin den *zituat* erabili *ditiat*-en orde; beste bat, behenafarra, zergatik ez den *dioagu* estandarra, *zioagu* beharrean. Oihartzabalek erdibidea aukeratu zuen, bai asmatu ere.

Zu, hala ere, arau gehiago eskatzen ari zara Euskaltzaindiari, eremu sozioafektiboa eta morfosintaktikoa arau ditzan.

Bai, baina bai nork bere buruari nola egin behar dion, adizki ihar-tuak nola erabili behar diren, aldaketa fonetikoak egiteaz eta hiperhitanoaz ere, adibidez, jardun beharko luke. Idazle, editore, irakasle, gidolari, antzerkigileek... erreferentziak behar dituzte-eta, norberaren intuitzioak ez ezik. Liburuan planteatzen den metodologia proposamen bat da bide horretan.

Hitanoa galbidean dagoela irakurri dizut han edo hemen.

Bai. Jo dezagun, Urola-Kostan (Gipuzkoa), adibidez, etxetik jasotako alokutibo eredu txukuna galbidean dago, bertako euskara egiten dutenek hitanoaren ezaugarriak ahaztu egiten dituzte, neskei toka egiten diete, gurasoek semeek toka egiten diete, baina alabei neutroan. Bestalde, hitanoa erabiltzen ez dakien jendea dabil, hika hizketan, zuzen egiten jakin gabe. Hitanoa etxean jaso dutenek, ondo, baina ikastolatik ateratako gazteek, edo bailara hartara joandakoek, edo familia erdaldunetako seme-alaba euskaldunek... ez dute etxeko hitanorik, kalean batari eta besteari entzundakoa baizik, formak nahasten dituzte! Horretaz ere ari naiz liburuko atal batean... Gazteen artean modan dago hika, eta nagusi dira forma arrotzak, inork ez du-eta zaintzen gazteek txukun hitz egitea. Hasteko, ez dute non ikasi, ez dute erreferentziarik ere... Beraz, tradizioaren arabera atzerantz egiten ari den bitartean, erreferentziarik gabe erabilitakoa nabarmen doa gorantz. *Zegokelako* erabiltzea, orain hika eta orain zuka egitea, hika eta neutroa nahastea, neskei toka egitea, koadrila osoari hika egitea... ■

www.argia.com/argia-astekaria helbidean, elkarrizketaren bertsio luzea.

Babeslea: Hondarribiko Udala



Bero-beroan

ONINTZA IRURETA

Langune elkarteak sortu da

JOAN DEN ASTEAN sortu zen Hizkuntza Industrien Elkarteak Euskal Herrian izeneko elkarteak. Euskal Herriko 22 erakunde, elkarte eta enpresak osatu dute, denak ere hizkuntzarekin lan egiten dutenak.

Elkartearen oinarri nagusiak ondokoak izango dira: eragileak dinamizatzea; elkarlana bultzatzea; Europar erreferentzia izango den hizkuntzen industria garatzeko bidean esfortzuak ez biderkatzea eta sinergiak lortzea; sektoreko lidergoa izatea eta administrazioarekin koordinatzea.

2010erako erronka nagusiak ondokoak dira: plan estrategikoa



egitea (2010-2013); klusterrarekin egoera lortzea; sozializazioa burutzea administrazioan eta eragileen artean, eta bazkide berriak lortzea.

Oraingo Langune elkarteak kideak segidakoak dira: Gizerbitek, Erein, Asmoz Fundazioa, Bitez, Plazagunea, Rec Grabaketa Estudioa, UZEI, Ametzagaña, Codesyntax, Mara-mara, Anboto,

EIZIE, Pausumedia, Elhuyar Fundazioa, Mondragon Lingua, Tekniker, Huhezi, Emun, Alberdania, TISA, Lacunza, eta Badihardugu Euskara Elkarteak.

Ekainera arte behin-behineko zuzendaritza izango da, orain arte elkarteak sortzeko urratsak ematen ari den lantalde bera:

- ✓ Josu Waliño (Elhuyar) lehendakaria.
- ✓ Xabier García Kortazar (Tekniker) lehendakariordea.
- ✓ Ritxi Lizartza (Mara-mara) diruzaina.
- ✓ Naiara Azpeitia (Rec grabaketa) idazkaria.
- ✓ Andoni Sagarna (Plazagunea) bozeramalea.
- ✓ Iñaki Alegria (EHU) aholkularia.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

TALAIAN

Pentsioak itxuraldatzen dituzten estatistikak

Administrazioek datu estatistiko ugari eskaintzen dute aldian-aldian, errealitatea itxuraldatu dezaketenak. Orintsu, Espainiako Estatuko pentsioen datuak eskaini zaizkigu. Hego Euskal Herriko herritarren pentsioak ere kudeatzen dituen Espainiako Gizarte Segurantzaren arabera, euskal herritarren batez besteko pentsioa, 2010eko urtarrilean, 967,56 eurokoa zen (958 euro EAEn eta 977,2 euro Nafarroan). 2010eko urtarrilean, Hegoaldean 610.076 pentsionista zeuden (491.770 EAEn eta 118.306 Nafarroan). Horien artean daude jubilatuak, alargunak, umezurtzak, behin betiko ezinduak... Esaten da Espainiako Estatuko batez besteko pentsiorik altuena dela Hego Euskal Herrikoa.

Estatistika horrek ezkututzen du zati batek, txikiak, pentsio maximoa jasotzen duela (2.466 euro arte 2010ean) eta beste zati batek, gehiengoak, batez bestekoa baino askoz ere gutxiago (549,80tik 725,20 eurotara). Hamarnaka mila dira hilean 444 euroekin bizirauten duten alargunak, eta gutxi batzuk iristen dira 679,70 eurotara. Hamarnaka mila dira behin betiko ezintasuna duten pertsonak, gehienak 365,40 euroko pentsioekin eta gutxiengo bat 1.000 euroekin. Milaka dira hileko 179,40 euroko pentsioa jasotzen duten umezurtzak. Hegoaldean 610.076 pentsiodunetatik 374.995ek jubilazioagatik pentsioa jasotzen dute, 159.351 alarguntzagatik, 56.044k behin betiko ezintasunagatik eta 16.359 dira umezurtz direlako pentsioa jasotzen dutenak.

Pentsio minimoek aurtun %4,87ko igoera izan dutela askotan esan digute, baina hileko igoera ez da hamar eurotara iristen! Hego Euskal Herrian hamarnaka mila lagun bizi dira pobreziaren atarian.

Juan Mari Arregi

BAHEA

Benito Fizek www.karrajua.org-en esanak: "Topikoekin hasita, gaur beste bat irakurri dudala uste dut. ETBk prestatu duen *Kerman mintzalagun bila* saio berriaren aurkezpenean hau irakurri dut (azpimarra nirea): 'Kerman ahozko euskara behin betiko menderatzeko helburuz kalera irtengo da. Helburu horrekin, Kermanek liburuak dauden-daudenean utziko ditu eta kale aldera abiatuko da euskara eguneroko bizimoduan erabiltzeko helburuz: euskaltegia urteetan irakatsi dioten teoria guztia benetan aplikatzeko garaia iritsi zaio'. Topikoa da, ala topikoa izatea nahi genuke? Hainbeste urte 'komunikatibo' adjektiboa hamaika substantiborekin ezkontzen, hainbeste paradigma aldatuta, HEOK, EEM eta enparau, eta oraindik 'teoriari' bueltaka gabiltzala uste du munduak? Ez da izango?'"

Amorrua multzo handitan pilatua

EZ ULERTZEA “NI PAPA”, ardoa eta uraren dialektika, “apal” berezi horiek, itzulpen txar edo itzulpenik gabeko epaiketak, terrorismoaren apologia frogatzeko Jon Idigorasen aipamenak... Auzitegi Nazionaleko pasarteekin barre egin dugu askok azken asteetan, baina barrearen atzean amorrua multzo handitan pilatzen da. Auzitegi Nazionalan beti gertatu dira oso egoera larriak, baina ohitu gara. Oraingo lardaskeria hauek azaleratu behar dira auzitegi horren izaerari buruzkoak barreiatzeko. Eta berme judizial horiekin, herritar askok kartzela zigor handiak bizkarreratzen dituzte.

Egunkaria auzia epaiari begira dago jada, eta epaiketa nola joan den ikusita inork gutxi espero dezake absoluzioa ez den bestelakorik. Baina beldurra airean da, hain zuzen ere, Auzitegiaren izaera ezagutzen delako eta absoluzioak kalte-ordainen bidea irekitzen duelako, horrek Estatuaren-tzat dakarren irudi kaskarra eta diru ordainketa handiarekin. Absoluzioak zuzenbide estatuaren izaera konpontzailea indartuko luke eta, bide batez, hurrengo datozenei, Udalbiltzakoei, berriz egurra emateko aukera indartu.

Jose Maria Sagardui “Gatza”ren omenaldian parte hartzeagatik

Arnaldo Otegi terrorismoaren apologia gaitik nola epaitzen zuten ulertzea gaitza zen. Itzulpenaren aferak instrukzioak nola egiten diren ikusteko aukera eskaini du eta hala bai, hala hobeto uler liteke auzi asko nola iristen diren epaiketara: haatik.

Karmelo Landa eta Batasuneko beste zenbait buruzagirekin bezala, espetxean mantentzen dituzte “bestela jarduera politikora itzultzeko arriskua” dagoelako. Baina PSE eta PPko buruzagiei, edo haien inguruko tertuliakide ugariei lasai entzungo zaie ezetz, hemen ez dela “jarduera politikorik zigortzen”.

Otsailaren 10ean biziko da beste kasu larri bat: Asier Agirre Aramaio-ko alkatea epaituko dute bere herrian AHTren proiektuari buruzko erreferenduma antolatu zuelako. Berdin da azken 30 urteetan gisa horretako dozenaka erreferendum egin badira Espainian, Aramaio-ko hori ezin zen egin eta listo.

Patxi Gomez preso ohia ere Parot legearen bidetik itzularazi nahi dute espetxera beste hamar urtez. Ortuellako udal osoak eskatu du –PSE barne– ez dadila halakorik egin.

Adierazi Euskal Herriak badu lanik giza eskubideen alorrean gertatzen diren ghegikeriak salatu

eta gizarteratzeko. Iragan larunbatean Bilboko Euskalduna Jauregian indar politiko eta sozial ugari bildu ziren ekimenari sostengua agertzeko. Bada zer bildu, zer antolatu, zer salatu.

“BAINA ZER ESPERO” daiteke ETA-rengandik erresistentziako erakunde armatu baten logikaren arabera? Pentsatzekoa da prozesua laguntzeaz gain, nola bukatuko den ez denez jakina, bera den botere faktiko hori mantenduko lukeela, eta modu baketsu batean ez balira gutxiengo eskaerak onartuko bere indarra eta eraginkortasuna azkartzeko prestatuko litzatekeela. Joan den astelehenean *Gara*-n Mikel Etxeberria preso ohiak idatzitako artikuluak ematen du zer hausartu Batasunaren baitan ematen ari den barne hausnarketaz.

Jesus Egigurenek ere, prozesu hori seriotzat eta zintzotzat hartzen du *Publico*-n egindako elkarrizketa batean, baina ezkor ageri da egoera horretatik ateratzeko ezker abertzale historikoak izango duen gaitasunaz. Madril dagoeneko bigarren plano batean geratzen den garai batean sartu garena ohartarazten die PSEko kideei.



Net Hurbil

PELLO ZUBIRIA

Errusiaren ondotik Japonia, Turkia eta Polonia AEBen etsai

Orriotan maiz azaltzen dira “bestelako mundua” eraiki dutenen iritziak, baina zer diote etorkizunaz “mundua bere horretan” atxikitzea nahi luketenek? Amerikako Estatu Batuetan segurtasun aferetako jakitun nagusitzat daukaten George Friedmanek XXI.eko mundu gerra iragarri du.

GEORGE FRIEDMAN HUNGARIARRA da sortzez, baina umetan bere familia juduarekin AEBetara ihes egin. Urte asko eman ondoren armadako buruei eta kadeteei lezioak irakasten, duela hamabost urte sortu zuen Stratfor institutua: *Strategic Forecasting* (Aurreikuspen Estrategikoa) kontzeptuaren laburdura da. Haren buletina jasotzen omen du munduko indar nagusien arteko tirabira eta orekez jakin nahi duen eta informazio pribilegiatua pagatzeko aski diru daukan buruzagi bakan orok.

Friedmanen azken liburua *The Next 100 Years: A forecast for the 21st Century* (Ondorengo 100 urteak: XXI. menderako aurreikuspena) deitzen da. Mexikoko *Nexos* hilabetezariak publikatu du liburua aitzin solasa, eta gureganaino *Courrier International* astekari frantsesaren iragazkitik pasata iritsi da, honek 1.000. zenbaki ikusgarrian sartu baitu.

Friedmanek XXI. mendea aurreikusten du Amerikako Estatu Batuen eta bigarren mailako potentzia batzuen arteko gerraz hornitua. Potentzia txikiagook gogor estutuko nahiko lituzkete AEB, eta aldiz amerikanoak ahalegintzen dira txikiago horiek elkartu ez daitezen.

Horrela ulertu behar omen da mende hasiera honetan AEBen eta Atlantikotik Itsaso Bareraino kalife-

rri islamiarra ezarri nahiko luketen taldeen artean: indar islamiarrok AEBei eraso egiten ei diete potentzia nagusia gerrara erakartzeko, ondorioz mundu osoko musulmanak oldartuko direlakoan. Erantzun gisa, AEBek inbaditu egin dituzte herrialde musulmanak, baina ez garaipenaren itxaropenez baizik eta mundu islamiarra desegonkortzeko.

Garaipena ez da, nonbait, yankien helburua. “Estatu Batuek ez daukate gerrarik irabazi beharrik –idatzi du George Friedmanek– aski dute mundu islamiarra desegonkortu eta elkarren arteko liskarra piztearekin”. Edonola ere AEBen eta islamiarren arteko gudua ari omen da amaierara iristen eta hurrengo gatazkarako prestatu beharra dago.

Errusiaren espantsionismoari begiratzen diote orain AEBek. Amerikarrak OTANeko kide direnez, bi blokeek Baltikoan –Estonia, Letonia, Lituania– eta Polonian egiten dute talka, hor ikusi behar omen ditugu tirabirarik beroenak amerikarren eta islamiarren arteko gerra bukatutakoan.

Azkenean, Friedmanen aburuz, bigarren Gerra Hotz hau ere Errusiaren porrotarekin amaituko da, barne arazoei aurre egiteko gauza izango ez delako. Nagusiki bi arazo nozitzen dituzte errusiarrek: behe-

rakada demografikoa eta azpiegituren ahuldadea.


Eta txinatarrek zer? Asko hitz egin eta idatzi da AEBen eta Txinaren arteko etsaigoaz, baina Friedmanek ez du uste hau hain gogorra izango denik. Hasteko, mapan ondo begiratzen bazaio, Txina oso herrialde isolatua da: Siberia iparretik, Himalaia eta oihanak hegotik, biztanleriaren gehiengoa ekialdean pilatua... Gainera aspaldi da Txinak indarra galdu zuela itsasoan.

Barruan omen darama kontraesan nagusia Txinak: aurrerapena itsas hegian biltzen du beti eta barruko aldeko nekazariak txiro bizitzen segitzen dute. Ziklikoki behar du pertsonalitate handi bat egonkortasuna berreskuratuko diona, ondasunen banaketa erekatuz. Ondoko hamarkadan egokitzen zaio berriro, Friedmanen kalkuluetan, horrelako fase nahasia Txinari eta AEBak aha-legenduko dira hango agintariei laguntzen, Errusiaren aurrean oreka egiten laguntzen dielakoan.

XXI.eko gerrak

Gaur gezurra dirudien arren, eta beti Friedmanen aurreikuspenetan, Japonia, Turkia eta Polonia izango dira Errusia bigarrenez erori ondoren AEBekin gerra egingo dutenak, XXI. mende erdi aldean. Ikusi banan bana.

Argazki txikian George Friedman, hainbeste esames sortu duen *The Next 100 Years: A forecast for the 21st Century* liburuaren egilea. Militarren aholkulari honen lau seme-alabetatik bi armadan ari dira. Irudi handia Gordon Hyde sarjentuak egin da eta AEBetako armadak ipinita dauka Interneten: Nogales izeneko hiri bikoitza erakusten du. Mugako hesi handiaren ezkerretakoa Arizona estatuko Nogales da, gringoa, 20.000 biztanle; ikusi fronteretako poliziaren bi furgonetak. Eskubitan dago Nogales mexikarra, Sonora estatuaren zati, 200.000 biztanlez goiti, AEBetako korporazioentzako azpikontratak burutzen dituzten *maquilladora* famatuek Mexiko osotik erakarriak. Zaila dirudi Mexiko AEBentzako mehatxu bihurtzea, baina hala aurikusi du Friedmanen.



ko beste *boom* indargabeturik egongo da XXI. erdialdetik aurrera: fini da leherketa demografikoa. Ondorioz, populazioaren handitzean oinarritutako garapen ekonomikoa –jende gehiago, langile gehiago, soldadu gehiago, kontsumitzaile gehiago– aldatu beharko da. Teknologia-
ren eta erroboten nagusitasuna eta genetikaren garrantzi handia, gizakien bizia luzatzeko baino gehiago (harrapa'zank!) haiek lanerako gai denbora gehiagoz mantentzeko. Orain soberan ditugun etorkinei orduan pagatu egingo omen diegu herrialde aberatsotara etortzeagatik.

Eta krisi guztiok onik gainditu dituelarik, XXI. mende bukaera aldean lehertuko zaie azkena AEBei: Mexikorekiko tirabira. Gaur munduko hamabosgarren ekonomia handiena dauka Mexikok baina mende bete barru Turkiarekin batera sailkapeneko burura hurbilduta egongo da.

Ordurako 1848ra arte Mexikorenak izandako estatuetan –Kalifornia, Utah, Nevada eta abar– herritarren gehiengoa jatorriz mexikarra izango da. “Mexikoko gobernuak uste izango du horrela ordaindu zaizkiola historian jasandako porrot militarrek. Iruditzen zait 2080 inguru horretan AEBen eta Mexikoren liskarrak beren beroenera iritsiak izanen direla”.

Friedmanen iragarpenetatik gaurko mundutarroi ez digu hainbeste axola beteko diren bezala –guk ez dugu ikusiko– baizik eta ezagutzea zein hipotesi darabiltzaten munduko potentzia nagusiko militarrei ideiak ematen dizkietenek. ■

Japonia da munduko bigarren ekonomia indartsuena eta makal dabil. Hazkunde demografikoa lur jota dauka eta etorkinak ekarri beharko ditu. Historian zehar egin izan duen legez, berriro militarismora joko du Japoniak.

Turkia izango da, beti bezala, musulmanen indarra bilduko duen herrialde nagusia. Oso egonkorra da alboan dituen Balkan, Kaukaso eta Ekialde Hurbileko herrialdeekin alderatuta; ondoko hamarkadetan sendotuko du jadanik gaur indartsu dauzkan ekonomia eta armada.

Poloniak, berriz, Alemaniaren ahultzea erabiliko du potentzia bilatzeko eta AEBek Errusiari aurre egiteko poloniarrez edukiko duten beharra ere bai.

Ez digu esaten George Friedmanek nor aterako den garaile XXI. mende erdialdeko mundu gerra horretatik, baina bai aurreikusten du gudu horietan mamituko dela XXI. mendearen bigarren erdian nagusi izango den energi iturria. Eguzkiaren indarrarekin lotuta dakusa berak, eta espazioan sortu ondoren lurrera mikrouhinetan ekartzeko sistema garatuko dela. Gerrak balio lezake gaur aipatzen diren eta laster prototipo mailan frogatuko diren teknologia errealitate bihurtzeko.

Aginte publikoek garatu beharko omen duten elektrizitate iturri berri-
tzaile horrek *boom* ekonomiko berria eragingo duela uste du Friedmanek. Aldi berean, aurreko hamarkadeta-





**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
zinkunegi@euskalnet.net

zuri begira

Itxaro Borda

Ultima ratio

Goizetan lanera noanean zubia zehar-
katzen dut eta Santizpiritun sartzean
Jehovaren Lekukoak beraien paper
eta aldizkariak banatzen kukuska-
tzen ditut. Ez diet sorik hedatzen,
den-mendreneko begirada dei antzera
interpreta dezaten beldurrez. Barne-tra-
gedia zantzuren baten aiduru daude
solasean hasteko eta 2012ko apokalipsia
iragarriaren karietara infernuko suan
nola kiskailduko garen *a+bez* azaltzeko,
Bibliako erakaspenak aitzakian. Horien
elasturiak entzun baino nahiago nuke
oraino Axularren *Guero* osoan etengabe
irakurtzera gatzigatu nazaten.

Gauetz zinematik natorrenean predi-
kari islamista bizardunen itzaletarik gor-
detzen naiz. Hauek ere 2012rako apoka-
lipsia hitz ematen dute bereziki buruak
estalirik ez dituzten neska gazte eta
andere zohituei. Larunbat arratsaldeetan
aldiz, Baionako karriketarik
shopping egiten nabilenean, ez
dut deusen premiarik, sota-
naz apaindu apezpikuaren
zaindaritza hurbileko apez
zainartak ikusten ditut, sol-
daduen moduan herrokan
jendetzak urratzen dituztela.
Mormoi hirukoteak eta aur-
pegi hitseko ebangelista bik
liburu saildua gora datxika-
te. Urrunago azkenik *bonze*
arropetan jantzirikoek lore
zimelak aurtikitzen dizkigute
ahots mehakoilez mantra lan-
zinanteak errepikatuz.

2012ko apokalipsia bertan
daukagu. Eliza mota guztiak,
bai eta sektak, hagin kurrus-
kaz doaz, pagano eta bekatorosen hon-
dar orenak leuntzeko. Izerdi. Hatsanka.
Perpausak aho-sabaian kuskatzen
zaizkie eta ezpainetan behera konben-
tzituen lekeda berdaska darie. Eguner-
kotasun *gore* batean bainatzen garela
dirudi, zerrendatzen baldin baditugu
bestaldeko munduko ezbehar larrienak,
bankuek eragin krisia adibidez, edo
pobreen bizirauteko gutizia nazkagarria
eta Haitiko lur-ikara izugarria, bakerik
nehoiz ez dukegula argi dago. Telebistek



GAIZKA IROZ

karia horretara diru-laguntza txapelketa
moduko bat antolatu zuten, arrats apa-
letan milioiak milioiei gehitzen zitzaiz-
kien zenbakiak eskainiz. Urrikia behin-
tzat eurotan konberti dezagula, guhaur
konbertitzen ez baldin bagara.

“Diru zakarrak bihotzik ez du” abes-
ten genuen aspaldi, zintzurrek oihar
ahala, baina baditu mutil-sehi itsuak
nasaiki. Gure arimak fede-multinaziona-
len gerra-zelai bihurtu dira. Erlijioak
enkantean zinpuetzen dira: nork aurtiki-
ko debekurik gogorrena, anatemarik
hertsizaleena, larderiarik handiena,
emazteen aurkako gorrotorik distira-
tsuena, emeak baitira zinez fedegitura
haboroxienetsai deabrutuak. Eta
botere politikoak belauniko datxizkate,
elizek joko koerzitibo baliosa eramaten
dutelako, merke. Fedearena, merkatu
neoliberal bat gehiago da. Lege iniko eta

logika aseko berdinarekin.
Bidenabar igurika dezagun
zeinek digun ate ilunen
sekretuan proposamenik
hoberena eginen, gaixotzen
gaituzten balizko errudun-
tasunen aurkako segurantzarik
egokiena eskura jarriko,
afektiboki errazena halaber,
ez baitugu sufrantza latze-
gietan higatzeko denborarik.

Aztekarren berrogeita
hamabiko urte zikloaren ara-
bera 2012an apokalipsiaren
desordenuak pairatuko ditu-
gu. Erdunian lehendakari
hauteskundeak dirateke
orduan. Eliseoan aterbetzen
dena apokalipsiaren zazpi

aingeru malefikoetarik bat denez gal-
dezka nabil Santizpiritu zubia trabeska-
tzean. Betazalak apaltzen ditut ez baitut
erantzunik eta ez nuke gustuko fede-tra-
tulariek ene dudak zula ditzaten. *Sumisio*
gider itzela baita zalantza haientzat, bizi-
dunak apalesteko. Populuaren opioaren
keetarik doi-doia askatu eta berriz harra-
patzen gaituzte integrismo ugarien
xederetan. Kontsumismo hutsalaren
aztaparrari esker.

Vade retro ultima ratio... ■

2012ko apokalipsia bertan daukagu.

Eliza mota guztiak, bai eta sektak, hagin



kurruskaz doaz, pagano eta bekatorosen

hondar orenak leuntzeko. Izerdi. Hatsanka.

Perpausak aho-sabaian kuskatzen zaizkie

eta ezpainetan behera konbentzitu-
en lekeda berdaska darie

ASTE HONETAKO zozketak



Laia Erreategia

Afaria 2 lagunentzat

Arkolla auzoa, 33
Hondarribia, GIPUZKOA

www.laiaerreategia.com

1



Inguru Abentura

3 bikoteentzat
espeologia (1. maila)

San Juan kalea, 18
Albeniz, ARABA

www.inguruabentura.com

2



Mikel Urdangarin

Zubia
3 CD opari

Baga Biga

www.baga-biga.com

3



Bilboko Euskal Museoa

4 harpidedunentzat
bina sarrera

Miguel de Unamuno plaza, 4
Bilbo, BIZKAIA

www.euskal-museoa.org

4



Kirolaz Badakit

3 mahai jolas opari

www.argia.com/denda

5

AURREKO ASTEKO IRABAZLEAK

UZTARTZA

- Pedro Etxabe Etxabe (Zumaia)

ARDIBIDEZ

- Jabier Agirre Lasarte (Donostia)
- Usurbilgo Txistulari Elkarte (Usurbil)

AIKO-MAIKO

- Jesus Mari Kerejeta Aldalur (Urretxu)
- Inaxio Agiriano Bergaretxe (Donostia)
- Xabier Ezpeleta Azueta (Elgeta)

DESKONTROL

- Raku Taberna (Tolosa)
- Karmele Señorena Arzadun (Donostia)
- Urretxu Zumarraga Udal Euskaltegia (Urretxu)


ORGANIKS

- Juan Jose Belamendia Senperena (Azkoitia)
- Rafael Gomez Urbiria (Donostia)
- Luis Mari Ralla Arruti (Donostia)

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 36 72 85 • gunea@argia.com • www.argia.com/gunea



TXITXARDIN
BELTXA

Oria Etorbidea. 12
☎ 37 03 04